

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

Historia Gradua  
2019-2020 ikasturtea

eman ta zabal zazu



UPV EHU

**Euskal Herriko historiaurreko hileta  
errituak genero ikuspuntutik  
aztertzeko proposamen bat**

**GRADU AMAIERAKO LANA**



**Nagore Goñi Gonzalez**

Tutorea: Naroa Garcia Ibaibarriaga

## LABURPENA

Heriotza gertakizun indibidual bat den bitartean, hileta erritu oro, bai sinpleena edo pobreena ere, gizarte gertakizun bat da; beti izanen da beste pertsona bat hura aurrera eramango duena, eta beti izanen da gertakizun sozial bat. Historiaurreko gizarteen ezagutzan aurreratzeak, hura osatzen zuten indibiduo ororen gaineko ulermenean sakontzea dakarrela defendatzen dugu: emakumezkoak, gizonezkoak, helduak eta haurrak. Horrela ez balitz, gizarte haien inguruko irudi ez-osotu eta distortsionatu bat eraikitzen egongo ginateke. Hileta errituen munduak espresuki bizidunen munduaren isla izan behar ez duela baldin badakigu ere, eta beraz, ondorio borobilak eskaintzeak berarekin dakartzan arriskuak saihesten ahalegindu behar bagara ere, gizartearen egitura sozial eta ideologikoaren alderdi batzuk bistartzeko hileta erregistroak eskaintzen digun informazio ugaria azpimarratu behar dugu.

*Heriotzaren eta Generoaren arkeologiak* eta *Antropologia fisikoak* eskaintzen dizkiguten ildo teorikoei jarraiki, Euskal Herriko eremu geografikoan -hau da, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan -arkeologikoki identifikatutako eta ikertutako hileta errituak genero ikuspuntutik aztertzen ahalegindu gara. Horretarako, giza hezurren aztarnak dituzten aztarnategien zerrenda bat osatu dugu, gure lanaren sustraitzat jo dugun taula bat osatuz. Finkatutako hainbat

irizpideei jarraiki, horien artean hileta erritu kontsideratutakoak eta azterketa antropologikoak eta bereziki sexu azterketak dituzten horien aukeraketa gauzatu dugu. Garai krono-kulturalka sailkatuz, aztarnategietako bakoitzeko hilobiratze eta gizabanakoek eskaintzen dizkiguten datuak eskainiz.

Genero eta identitateen eraikuntzan sakontzeko lagungarri izan daitezkeen alderdietatik, lana proposamen bat den heinean, hiru baino ez ditugu landu, etorkizuneko azterketa sakonagoei bidea irekita utziz. Gure oinarri izan diren subjektuen sexua eta adina, sexu ratioa, indibidualtasun markagailua eta hilobi-egituren tipologia izan dira landu ditugun alderdiak, demografia eta hileta jarduerekin zuzenean lotutakoak, horretarako taula, grafiko eta formula desberdinak erabili ditugularik.

Analisia egiteko baliatutako alderdietatik ateratako ondorioak polemiko eta eztabaidagarriak izan badaitezke ere, datuetatik abiatuta, bistakoa dirudi Euskal Herriko historiaurreko hileta-erregistroan ematen den sexu maskulinoaren gain-errepresentazioa edo sexu femeninoaren infra-errepresentazioa. Gure lanaren helburua emakumeen aurrean gizonezkoek hileta errituetara izan zuten sarbide sarriagoaren arrazoia azaltzea ez bada ere, praktika eta hautaketa horien zergatiak sozialak edo kulturalak izan zitezkeela esatea egokitzen jo dugu.

## AURKIBIDEA

1.- SARRERA .....	4
2.- MARKO TEORIKOA .....	5
3.- HELBURUAK ETA METODOLOGIA .....	8
4.- AZTARNATEGIEN AUKERAKETARAKO IRIZPIDEAN FINKATZEA ....	12
5.- DEMOGRAFIA ETA HILETA JARDUEREN ANALISI .....	14
5.1.- Mesolitoa .....	15
5.2.- Neolitoa .....	16
5.3.- Kalkolitoa .....	19
5.4.- Brontze Aroa .....	22
6.- ONDORIOAK .....	25
ESKER ONAK .....	28
ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK .....	28
ERANSKINA I .....	29
ERANSKINA II .....	31
ERANSKINA III .....	40
ERANSKINA IV .....	47
ERANSKINA V .....	52
ERANSKINA VI .....	56

## 1. Sarrera

Ikerlarien artean nolabaiteko adostasuna dagoela esan daiteke hildakoen munduaren eta bizirik daudenean munduaren artean esanguratsuak izan daitezkeen patrioiak ezarri daitezkeela onartzean, beti kontuan hartuta kultura bakoitzak heriotzari aurre egiteko berezko modua izan dezakeela. Hileta paisaia aztertzeke orduan arbasoen paisaia bezala ulertu behar dugu, zeinak zentzua eta kohesioa bermatzen dion taldeari, muga geografiko eta mitikoak definitzen lagunduz (Hernando, 2005). Hileta errituen generoen irudikapenak bizidunen genero harremanen isla zuzena izan beharrik ez badu ere, oso informazio interesgarria eskaintzen duen alor bat da. Izan ere, heriotzaren irudikapenean, gizarte kategorizazioaren forma desberdinak irudikatzen dira, eta hauen barruan, generoa dago (Prados et al., 2012).

Hilobiak intentzizko ekintzak dira, espresuki esanguratsuak, eta esangura horrek ihes egiten badigu ere, hilobiaren formatik hatuetara dena hautespen ez-kasual eta ez-arbitrario bati dagokio; egoerek, batzuetan, eta sinesmen eta gizarte eskakizunek, besteetan, determinaturikoak (Andrés, 2003). Hala ere, pauso handi bat dago hileta errituen errealitatearen eta haietatik kontserbatzen diren aztarna arkeologikoen artean, ez bakarrik kantitateari dagokionez, baita kalitateari dagokionez ere. Horregatik, historiaurreko hileta-errituen kontzeptua eta esanahia maizago lantzen dira arrazoiketa eta intuizioz. Hilobien alderdi deskribatzaile, tipologiko eta kronologikoak teknikoki kontrolatuta daude, ez dute arazo larririk, ñabardurak kenduta; baina ikertzailea, aztarna horietatik haratago joatera behartuta dago, “para localizar en la cultura material los elementos de un lenguaje social” (Ibidem: 17).

Kontuan hartu behar da, ordea, gehienetan ikerketak talde murriztu baten hilobiratzeetan oinarritzen direla, zeinak askotan eliteekin bat egiten duten, biztanleriaren gehiengoak aurrera eramandako hileta errituek arrasto arkeologikorik utzi ez dutelarik (Prados et al., 2012). Era berean, gauza jakina bada ere, bizirik daudenak dira hildakoak lurperatzen dituztenak, eta beraz, hileta errituak bizirik daudenen ideien arabera manipulatu daude, familiak edo taldeak etorkizunean iraungo duen hildakoaren inguruko ideia hautatuz (Andrés, 2003).

## 2.- Marko teorikoa

Oso laburki, gure ikerketaren ardatz teoriko nagusiak zehaztuko ditugu. Hiru dira gure oinarriak, lehengo biak arkeologikoak eta hirugarrena antropologikoa, ikerketaren munduan diziplina desberdinen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratuz.

Lehenik eta behin, *Arqueología de la muerte* edo *Heriotzaren arkeologia* bezala ezagutzen dena izanen da gure zutabeetako bat. Historiaurreko hileta-errituen esanahi zehatza ezagutzea ezinezkoa dela abiapuntutzat hartuta, *Heriotzaren arkeologiak* iraganeko gizarteen berreraikuntzarako ezinbestekoa den informazio ugari biltzen du, hildakoen -eta ez soilik hilobien- inguruko erritu eta praktika zantzu guztiak aztertuz eta ikertutako gizarteen gainerako alderdiekin uztartuz. Hileta errituak, hildakoaren kontrol sozial bat suposatzen du; hildakoaren, hilobiaren egituraren, hilotzaren tratamenduaren, eskaintzen (hilobiaren barnealdean zein kanpoaldean aurkitu daitezkenak) eta abarren deskribapena egin daiteke, ez ordea, ahoskaturiko diskurtsoena edo aurrera eramandako zeremoniarena. Eta antzinateko gizarteei eta beste garai historiko batzuei buruzko datuek iradokitzen digute zenbat eta garrantzi gutxiago izan sinboloek, orduan eta gehiago dutela diskurtsoek, eta alderantziz (Andrés, 2003). Arkeologikoki aurkezten zaizkigun elementuen esanahi osoa eskuratzeko dugun ezintasuna agerikoa bada ere, egia da aztarna pobre horietan datzala gizarte-sistemari eta sinesmenei buruz eraikitzeko daukagun aukera bakarra. Esku artean dugun guztia sinboloak badira, eta sinboloak beti zalantzarriak eta polisemikoak badira, historiaurrekoak, gainera, murriztagoak dira.

Bigarren ardatz nagusia *Genero arkeologia* edo/eta *Arkeologia feminista* izanen da<sup>1</sup>. Kontuan hartuta hileta jokabideak edozein komunitateren interakzio sozialen barnean daudela, iraganeko hileta sekuentzien azterketa arkeologiko eta historikoak komunitate horien bizimodua ulertzen lagundu dezakeela argi dago. Heriotzaren inguruko jarrera gutxi gorabehera malguak izan daitezkeen gizarte arauen bidez ezartzen da, ondoren guk aztertzen ditugun hileta deposituen izaera ezarriz (Prados et al., 2012). Hori dela eta, genero sistemen inguruko informazioa lortzeko leku ezin hobeak dira.

---

<sup>1</sup> Lan honetan bi ildo hauen arteko desberdintasun eta berdintasunetan sartuko ez garen heinean, atal berean multzokatzea egokitzen jo dugu.

Feminismoaren bigarren olatuak, zeinaren indarretik *Genero arkeologia* sortu zen, hirurogeita hamarreko hamarkadan izan zuen eragina arkeologiaren diziplinan. Emakumeek jasaten zuten bereizketa bikoitzak, bai lanbidean bertan, eta bai iraganaren azalpenean/azterketan, narratiba eta jarduera arkeologikoen berrikusketa kritikoa bultzatu zuen, diziplinaren eraberritze orokorrerako ezinbestekotzat jo zena. Era beran, emakumeen papera birdefinitzeko nahi horrek genero ikuspuntu esplizitu bat gehitu zuen hileta erregistroaren analisisian (Montón, 2012). Egia da genero ikerketak emakumeen ikerketekin lotu izan direla. Izan era, haiek izan ziren indarrean dagoen genero sistemak ezarritako betebeharrak eta arauak iraultzen ahalegindu ziren lehenengoak, eta idatzitako historian haien burua beste era batera aurkitzeko beharra adierazi zutenak. Hori dela eta, generoari buruzko ikerketa asko ere emakumeek egindakoak dira, beti horrela ez bada ere.

Arkeologia tradizionalak industutako hileta arrastoak sexuatzeko interesa erakutsi du, baina orokorrean, interes hori, ahal zenean, hilobiratutako gizabanakoen sexua eta adina adieraztera mugatzen zen. Klasifikazio hauek kasu askotan arrasto osteologikoen bidez ezarri dira; beste zenbaitetan, ordea, sexua hatuen analisisiei jarraiki ezarri da, edo onartuz, hilobiratze bat haren aberastasun eta kategorizazio sozialagatik gailentzen denean gizonezko baten hilobiratze baten aurrean gaudela, beti horrela ez denean. Badakigu, hileta erregistroaren bidez identitate eta generoaren eraikuntza modu anitzak ezarri daitezkeela; honen barruan sartu ditzakegu hileta paisaiaren diseinua, gorpuaren kokatze eta orientazio modua, edo haren arrastoen errautsena, hilobietako objektuen antolaketa espaziala, hatuen material eta kopurua, etab. Era berean, kontuan hartu behar da hilobiratzeak sexuatu badaitezke ere, hauek beti ez dutela zertan desberdintasunik erakutsi behar haien hatuarekiko, orientazioarekiko, etab. Azpimarratuz, gainera, objektu berdinek ez dutela esanahi berbera kultura guztietan. Objektu baten esanahiaren interpretazioak, aurkitzen den testuinguruaren interpretazioarekin lotuta egon behar du. Zentzu honetan, emakumeen hilobietan tradizionalki gizonezkoenak kontsideratutako objektuen agerpena, hala nola armen agerpena, azaldu beharko dugu, tradizioz emakumeei atxikitutako objektuak, haien artean ehungintzarekin lotutakoak, gizonezkoen hilobiratzeetan agertzean bezala (Prados et al., 2012). Akats bat da ordea bi sexuetan – gizonezkoa eta emakumezkoa – oinarrituta, soilik bi genero existitu zitezkeela onartzea.

Hirugarren oinarri teorikoa, *Antropologia fisikoa* izanen da. Historiaurreko hilobien azterketan eta interpretazioan ikuspegi historiko eta arkeologikoarekin elkarlanean aritzen denean, agerikoa da iraganeko gizarteen eta haren protagonisten errealitatearen ezagutzan eskaintzen dituen abantailak. Era berean, hileta-aztarnen interpretazio sozial eta ideologikoan hagitz lagungarria da (Andrés, 2003). Ikerketa honetan soilik alderdi historikoa eta arkeologikoa aplikatzean eman daitezkeen errore marjina zabalak murrizten laguntzen du, galdera fisiologiko batzuk ebatziz eta alderdi ekonomikoan, sozialen eta ideologikoen berreraikuntzarako oinarri sendoagoak ezarriz.

Gure lanean, beraz, hiru diziplina hauen arteko elkarlanean oinarrituko gara, beti kontuan hartuta hauteman daitezkeen erritu-aldaerak ia infinituak direla, ehorzketa bat ere ez baita beste baten berdina. Horrela, laburki aurkeztuko ditugu historiaurreko gizarteen egitura sozial eta ideologikoen alderdi batzuk bistaratzeko zantzuak ematen ditzaketen kategoria metodologiko desberdinetako aztertu beharreko datu batzuk<sup>2</sup>, bi multzo handitan banatutakoak (1. Taula; Andrés, 2003; Montón, 2012; Cinta, 2018):

**1. Taula.** Gizarteen egitura sozial eta ideologikoa aztertzen lagun dezaketen alderdi batzuk.

<b>Hileta jarduerekin zuzenean lotuak</b>	<b>Alderdi demografiko eta antropologikoak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hilobi-egitura</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hilobiratutakoen sexua eta adina</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hilotzaren tratamendua eta deposizioaren azken forma</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dieta azterketa</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indibidualtasunaren markagailuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugikortasuna</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskaintzak eta/edo hatuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Paleopatologia</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erlijio-dimentsioko elementuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bortizkeria markagailuak</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizilekuarekin duen lotura</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera markagailuak</li> </ul>

<sup>2</sup> Gure lana proposamen bat eta Gradu Amaierako Lan bat de heinean, eta lanak izan beharreko karakter kopurua mugatuta egonda, ez gara alderdi guztietan sartuko (zeinetan sartuko garen aurrerago adieraziko dugu). Hala ere, denak azpimarratzea garrantzitsua iruditu zaigu.

### 3.- Helburuak eta metodologia

*Las diferencias cuantitativas y cualitativas entre las formas de enterramientos, sus rituales y los ajuares, permiten analizar las diferencias en la asignación del género a lo largo de los años, así como los cambios ideológicos y sociales producidos durante este período (Prados, 2012: 19).*

Lanaren izenburuak ongi adierazten duen bezala, gure helburu nagusia Euskal Herriko esparru geografikoan<sup>3</sup> historiaurrean zehar emandako hileta errituak genero ikuspuntutik aztertzea da. Saiakera honek, beraz, helburu bikoitza dauka bere baitan: bata deskriptiboagoa, bilaketa bibliografikoan sakonki oinarritutakoa, Euskal Herrian hileta errituak dituzten aztarnategien sintesi lan bat egitea da, hauek zerrendatuz eta ondoren krono-kulturalki sailkatuz, adibideetan oinarritutako hileta errituen bilakaeraren ikuspegi bat eskaintzeko asmoz. Bigarrena, genero ikuspuntuan oinarritutako saiakera bat gauzatzea, aztertutako aztarnategietatik lortutako erregistro arkeologiko eta antropologikoa ondoren zehaztuko ditugun ikuspuntu ezberdinetatik analizatuz.

Gure lana aurrera eramateko xedearekin, giza hezurren arrastoak dituzten aztarnategien informazioa biltzen duen taula bat osatu dugu (VI. Eranskina). Esan daiteke taula hau lanaren sustraiak direla, eta gure lana, hari hitzak jartzen dizkion gorputz idatzia. Taula osatzeko, bilaketa bibliografikoan oinarritutako baliabideak erabili ditugu; bai esparru geografiko edo garai krono-kultural zehatzen inguruko sintesi lanak, bai aztarnategi zehatzen indusketen eta hauetatik bideratutako azterketa antropologikoen txostenak ere, bata bestea osatzen duelarik. Behin aztarnategiak zerrendatuta, bakoitzaren inguruko hainbat daturi erreparatu diegu: garai krono-kulturala, aztarnategi mota, hilobiratzeak kontsideratu daitezkeen hala ez, hilobiratze mota eta giza hezurrei egindako azterketak (C14 datazioak, azterketa antropologikoak eta sexu azterketak). Ondoren, azterketa antropologikoak dituzten horien hautaketa gauzatu dugu, garaika antolatuz eta bakoitzaren inguruko informazioa bilduz (I., II., III., IV., eta V. Eranskinak).

---

<sup>3</sup> Euskal Herriko eremu geografikoaz hitz egiten dugunean, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeez ari gara.



Metodo analitikoa da beraz guk erabili duguna, osotasun bat –Euskal Herriko historiaurreko hileta errituak- zatituz, banaketa horretatik ateratako zatiak aztertzeke - hileta erritu zehatzak- osotasun horren kausak, natura eta izaera ezagutzeko helburuarekin. Gure bigarren helburua eta lanaren mamia dena gauzatzeko xedearrekin, aukeratutako aztarnategietatik lortutako datuekin alor desberdinak lantzen dituzten taula eta grafiko desberdinak osatu ditugu, ondoren haien azalpena eskainiz. Aurretik finkatu dugun marko teorikoari jarraiki, lortutako datuak hari uztartzen saiatu gara, gure oinarri empirikoaren funtsetako bat deskribapena eta interpretazioaren arteko lotura izan delarik.

Jadanik marko teorikoaren atalean zerrendatu ditugu historiaurreko gizartearen egitura sozial eta ideologikoaren alderdi batzuk bistaratzeko zantzuak eman ditzaketen eta kategoria metodologiko desberdinetakoak diren datu batzuk. Lanaren helburua, izaera eta luzeraren mugak kontuan harturik, ordea, hiru izanen dira soilik gure analisisan jorratuko ditugun alderdiak. Lehenengoa, hilobiratutako pertsonen sexua eta adinari dagokiona, alderdi demografiko eta antropologikoarekin lotutakoa. Beste biak, hileta errituekin zuzenean loturikoak: Indibidualtasunaren markagailuak, alde batetik, eta hileta-egituraren tipologia eta honek bi sexuekin duen lotura, bestetik. Alderdi hauetako bakoitza, era bereizi batean landuko dugu garai krono-kultural bakoitzean.

Lehenik eta behin, aztergai ditugun **personen sexu eta adinaren** irizpideari erreparatuko diogu. Horretarako, aztarnategi bakoitzean erregistratutako gizabanakoen sexua eta adina erakusten dituen taula bat osatuko dugu, heldu bezala zehaztutakoaren artean femenino edo femenino probable (F/F?), maskulino edo maskulino probablea (M/M?), zehaztu gabeak (ZG) eta ez-heldu zehaztu gabea (EHZG) kategoriak erabiliz. Honetaz gain, aztarnategi bakoitzean F/F? eta M/M? zehaztutakoaren ehunekoak adierazten dituen grafiko bat eskainiko dugu, bi taldeen arteko konparaketa kuantitatiboa egiteko.

Honetaz gain, **sexu ratioa**, maskulinitate indizea edo feminitate indizea bezala ezagutzen dena kalkulatu dugu. Honek, gure aztergairako lehen hurbilketa bat eskaintzen digu: Euskal Herriko historiaurrerako eskuragarri dauden arrastoaren arteko emakume-gizon erlazio kuantitatiboari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen digu (Cinta, 2018). Adierazle demografiko honek emakumeekiko gizonezkoen kopurua eta/edo alderantziz konparatzea ahalbidetzen du. Erabiltzen den formula hurrengoa da:  $SA = 100 * \text{gizonezkoak} / \text{emakumezkoak}$ . Gure lanean, ratioa ehunekotan adieraziko

dugu; hau da, adibidez, 124 gizon ehun emakumeko. Gizarte modernoetako jaiotze uneko sexu ratioa 1,05 da, gizezkoekiko mesedegarri delarik (Ibidem.). Geroago, adinarekin loturik, ratioa alda daiteke, bi taldeetan egon daitezkeen hilkortasun mailaren desberdintasuna dela eta. Modu honetan, bizitzako une desberdinetako sexu ratioak gizarte baten jardura kultural eta antolaketa sozialaren inguruko informazio ez-zuzena eskaini ahal digu. Hala ere, kontuan hartu behar da sexu ratioak hildakoen munduari buruzko informazioa eskaintzen digula, eta honek ez duela zertan bizidunen munduarekin guztiz bat egin behar, hileta errituen inguruko erregistroa mugatua baita. Beraz, lortutako zifretan soilik oinarritutako hipotesia ezarri ezin badezakegu ere, aztertuko ditugun gainerako alderdietatik lortuko ditugun datuekin uztartzeko informazioa eskaini diezaguke.

Bestalde, hileta errituekin zuzenean lotutako bi alderdiei dagokienez, oinarritzko bi dikotomia ditugu: ehorzketa/errausketa eta ehorzketa indibiduala/kolektiboa. Gaur egun badakigu hileta-jarrera horien konbinazioa, txandakatzea eta baterako existentzia nonahikoak direla espazioari, denborari eta kulturari dagokienez (Andrés, 2013). Arrazoia da hileta-portaerek, behin sozialki araututa, asko zor dietela kultura-tradizioei - iraukortasunaren faktorea-; baina aldakuntzak ere badakartzate hainbat arrazoiengatik: kanpo-eragina (erlijio-sinesmen berrien inpregnazio edo asimilazio maila desberdina), gizabanako jakin batzuen gizarte-kontsiderazioaren bilakaera bera, eta egoera ekonomiko edo teknikoen aldaketa puntuala, honek guztiak ehorzketaren azken xedapenean eta forman eraginez.

Lehenengo dikotomiaren barnean sartuko litzateke guk aztertuko dugun **hileta-egituren tipologiaren** alderdia. Egitura desberdinak eta hauek biltzen dituzten subjektuekin duten erlazioa adieraztera mugatuko gara modu deskriptibo batean, bertatik lortutako datuetatik ondorio osotuagoak lortzeko alderdi gehiagoren - adibide bezala, hatuen - azterketaren beharraz kontziente izanik. Era berean, haien artean kronologikoki oso urruti dauden egituren konparaketak dakarren zailtasuna kontuan hartuta, garaika egingen dugu, eta garai bakoitzean egituren tipologia aldatuko bada ere, orokorrean hurrengo sailkapena erabiliko dugu, behar denean moldaketak eginez:

1. Hobia
2. Zista
4. Fosa
3. Harpea
4. Egitura megalitiko

**Indibidualtasun markagailuari** dagokionez, alderdi hau aztertuz gizabanako bakar baten hilobiratzearen eta hilobiratze kolektiboek artean – hauek binakakoak, hirukoak, lauakoak, etab. izanda ere bereiztea bilatzen da. Hileta errituen indibidualizazioa bera, gainontzekoekiko gizabanako batzuen desberdintzearen adierazle gisa ulertu izan da, maila sozialari dagokionez. Neolitoaren bukaeran hasi, Kalkolito osoan zehar iraun, eta batez ere Brontze Aroaren bukaeran osatzen den hilobiratze kolektiboetatik (hilobi megalitiko eta haitzuloetan gauzatuak) banakako hilobiratzeetarako trantsizioa, oso gutxi hierarkizatutako gizarteetatik bereizketan oinarritutako gizarteetarako pauso gisa ikusi izan da (Cinta, 2018). Hala ere, lehenengo hilobiratzeetara itzultzen bagara, ehiztari-biltzaile talde gehienek haien hildakoek modu indibidual batean hilobiratzen zituzten, berdintasunean oinarritutako edo desberdintasun sozial urriko gizartetzat jotzen badira ere. Beraz, argi dago, hilobiratze indibidual batek ez duela zertan eskala sozialeko postu gorenago batekin lotuta egon behar.

Hala ere, argi dago hilobiratze indibidualerantz doan joera gizartearen konplexutasunaren areagotzearekin loturik dagoela. Modu honetan, hierarkizazioaren garapena modelo indibidualerantz doan trantsizioarekin modu nahiko paralelo batean egin zen. Gure helburua, beraz, eskuragarri dugun erregistroaren bidez garapen honen zantzuak ikustea posible den hala ez aztertzea izanen da.

#### 4.- Aztarnategien aukeraketarako irizpidean finkatzea

Tradizionalki, fenomeno sinboliko, erritual eta erlijiosoak gizaki modernoaren jokabidearekin hertsiki lotutako ezaugarriak direla pentsatu izan da, eta beraz, definizioz, jokabide mota hauek *Homo sapiens* espeziearekin lotu izan dira ia eksklusiboki. Lotura hau kontuan hartuta, ikuspuntu arkeologikotik ikertzaile gehienek adostasun metodologiko bat onartu dute, zeinaren arabera posible den jokabide modernoak identifikatzea kultura materialaren adierazpen zehatz batzuk egiaztatzen badira. Giza adimenaren konplexutasunaren adierazle izango liratekeen bereizgarri baten edo batzuen presentzia/gabezia oinarritutako prozedura bat izango litzateke hau. Trebetasun teknologikoarekin, lurraldetasunarekin, biziraupen estrategiekin, jokaera sinbolikoarekin – apaingarri pertsonalak, pigmentuen erabilera dekoratiboa, hileta errituak, etab. - zerikusia duten alderdiak izango lirateke hauek. Hala ere, adierazle arkeologiko guzti hauen eta haien banaketa espazio-tenporalaren hautematea ez dago eztabaidatik salbuetsita. Autore batzuen ustez (Diez, 2014), jokabide modernoak era puntual batean agertu zen giza garapenaren prozesuan zehar, “big bang” edo “iraultza” kultural baten antzera. K.a.-ko 50 inguruan eta *sapiens* adimenaren birmoldaketa neuronal baten ondoren, eta aurretik aipatutako ezaugarri guztiak pakete bakar bat izango balira bezala agertuko lirateke erregistro arkeologikoan bat batean. Beste ikerlari batzuen aburuz, ordea, jokaera modernoaren ernaltzea prozesu gehigarri eta pixkanakako baten gisa ulertu behar da, zeina erregistro fosilean *sapiens* espeziearen agerpena baino lehen jarri zen abian.

Eztabaia honek, fenomeno kultural, biologiko eta egokitzapeneko zehatz bat identifikatzeaz haratago, kategorizazio arkeologikoen esanahia eta haien baliotasuna eta gizaki modernoaren bereizgarri konplexuak identifikatzeko moduak birpentsatzea izan du ondorioetako bat. Horrela, jokamolde modernoaren jatorriari buruzko eztabaidaren paraleloan, hasiera metodologiko gisa modernitate kognitiboa gure espeziari soilik ez atxikitzearen beharra azpimarratzen duen lerro bat garatu da, bereziki *Homo neanderthalensis* espeziean zentratuz, anatomia modernoaren eta jokaera modernoaren arteko erlazio automatikoa baztertuz. Era berean, modernitate kognitiboaren eta ustezko arrasto arkeologiko modernoaren arteko lotura ezartzeko zailtasuna kritikatu da. Izan ere, ezinezkoa da frogatzea aurretik aipatutako markagailu arkeologikoak erabiltzen dituen talde bat, erabiltzen ez dituen baina modernoagoa denik. Gainera, jokabide sinbolikoaren azpiproduktu materialak ez du zertan aztarna arkeologiko ezaguterrazik

utzi kasu guztietan. Modu honetan, kontuan hartu behar da arkeologikoki identifikatutako hileta errituen bidez aztertutako jokabide erritual-sinbolikoa beti egongo dela mugatua hileta prozesuaren barnean dauden eta denboran zehar irauten ez duten seinaleen faltara – adibide bezala, hileta errituan zehar gauzaturiko hitzaldiak edo ospakizunak-. Beste batzuetan, muga hau, aztarnak antzemateko uneko subjektibitate eta zalantzek edo ikerlariaren beraren berezko interpretazio paradigma pertsonalak ezarriko dute (Ibidem). Horrela, eta bereziki giza garapenaren garai zaharrenetako hileta errituak identifikatzeko eta ikertzeko zailtasunak kontuan hartuta, gure lanean aztertutako giza aztarnak dituzten aztarnategi guztien (VI. Eranskina) artean hileta errituak dituztela kontsideratzeko bete beharreko ezaugarriak zerrendatuko ditugu:

- **Nahita egindako deposizio edo biltegitratzea.** Paisaiaren puntu zehaztuta edo haien babeserako bereziki mesedegarriak diren espazioetan nahita eta modu errepikakorrean egindako gorpuen pilaketa litzateke.
- **Ehorzketa formala.** Leku baten berariazko egokitzapena (fosa/hobi baten indusketa, deposizioa, etab.) hilotza era zuzen baten (lehenengo mailakoa) edo manipulazio prozesuen ondoren (bigarren mailakoa) babestera bideratua.
- **Elementu erritual edo oroitzapenezkoak.** Ehortzitako gizabanakoekin lotura duten eta balio sinbolikoa duten kultura materialeko objektu eta elementuak.
- **Errausketa:** Hildakoen gorpuen erreketak oso edo partziala.

Bestalde, behin hileta errituak zehaztuta, eta gure lanaren oinarri nagusienetako bat genero ikuspuntua den heinean, hurrengo baldintzak ere bete behar dituzte:

- **Antropologia fisikoko azterketak eginak egotea:** Honen barruan, gizabanakoaren sexua zehaztuta egotea, sexuen arteko konparaketa egin ahal izateko.
- **Haurren hilobiratzeak:** Hauen sexua zehaztuta ez badago baina azterketa antropologikoak egin badira kontuan izanen ditugu.

Horrela ba, gure lanean hileta errituak kontsideratzen diren eta haien giza aztarnen gainean sexua zehaztuz antropologia analisiak dituzten aztarnategi horien deskribapena eta analisia eskainiko dugu, ahal den kasuetan giza hezurren gainean egindako C14<sup>4</sup> datak eskainiz.


---

<sup>4</sup> Gure datuak kalibratu gabeko BP-n eskainiko ditugu, hau baita argitalpen gehienek eskaintzen duten formatua.


## 5.- Demografia eta hileta jardueren analisia

*Si la muerte es un hecho individual, todo enterramiento, aún el más simple, el más pobre, es un hecho social; siempre será otra persona quien lo realice, siempre implica un acto social (Andrés, 2003: 14).*

1.199 gizabanakori dagozkien datu arkeologikoak (2. Irudia) hartu dira analisia aurrera eramateko oinarri gisa, guztira 36 aztarnategitatik datozenak (I., II., III. eta IV. Eranskinak) (1. Irudia). Gizabanako horietatik 248 femenino edo femenino probable (F/F?) bezala zehaztu dira, 367 maskulino edo maskulino (M/M?) probable gisa, 167 zehaztu gabe (ZG) bezala eta 417 ez-heldu zehaztu gabe (EHZG) bezala. Azpimarratu behar da, 1.199 gizabanakoek ez dutela Euskal Herriko marko geografikoko historiaurreko hileta erregistroaren corpus zehatza izateko helbururik, zati batean behintzat azter daitekeen lagin bat izatea baizik. Modu honetan, Mesolitotik Brontze Arora bitarteko garai krono-kulturala izanen da gure analisirako zehaztutako denbora tartea. Izan ere, Burdin Arorako aztertu ditugun aztarnategiek eskaintzen dituzten datuak (V. Eranskina) ez-osotzat jo ditugu, etxe azpiko haurren hilobiratzeei buruzko datuak lortu baititugu soilik.



1. Irudia. Garai bakoitzerako aztertutako aztarnategi kopurua.



2. Irudia. Garai bakoitzerako zehaztutako Gutxiengo Gizabanako Kopurua (GGK).

### 5.1.- Mesolitoa

Isturitz, Lezetxiki, Axlor, Arrillor, Kobeaga II eta beste hainbat aztarnategitan Behe, Erdi, eta Goi-Paleolitoari dagozkion giza aztarnak baditugu ere, hileta erritu edo hilobiratzeez hitz egiteko, ordea, Mesolitoraino itxaron beharko dugu gure eskualdean. Errealitate hau ez da salbuespen bat; izan ere, adibide bezala, Iberiar Penintsulan Goi Paleolitorako Morín (Kantabria), Lagar Velho (Extremadura) eta El Mirón-eko *Red Lady* (Kantabria) aztarnategietan, eta zalantza gehiagorekin Sima de las Palomas (Murtzia) eta Sima de los Huesos-en (Burgos), hitz egin dezakegu soilik hilobiratzeen inguruan. Euskal Herrian Mesolitorako bi harpe eta kobazulo bat dira hilobiratzeak dituzten aztarnategiak, J3 edo Txotxipi eta Linatzeta Gipuzkoan, eta Aipzea Nafarroan (I. Eranskina).

2. **Taula** Gizabanako kopurua sexu eta adin taldeka hileta testuinguru neolitikoetan. GGK: Gutxiengo Gizabanako Kopurua; F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

Aztarnategia	Probintzia	GGK	F/F?	M/M?	DG	EHDG
<b>Aizpea</b>	Nafarroa	1	1	0	0	0
<b>J3</b>	Gipuzkoa	1	0	1	0	0
<b>Linatzeta</b>	Gipuzkoa	1	0	0	0	1
<b>GUZTIRA</b>		3	1	1	0	1

Hiru aztarnategiri dagozkion hiru gizabanako dira beraz Mesolitoaren analisisa egiteko daukagun oinarria. Garaiaren inguruko ideia orokor bat egiteko eta ondorioak aztertzekeo datu urriak badira ere, finkatutako hiru alderdiei erreparatuko diegu laburki, sexu ratioa eta adin tasa ez aztertzea erabaki badugu ere. Azterketa antropologikoei bi subjektoren sexua zehaztea ahalbidetu dute bata sexu maskulinokoa (J3-n) eta bestea femeninokoa (Aizpean) delarik. Adinari dagokionez, sexuaturtako biak helduak diren bitartean hirugarren gizabanakoa ez-heldua da (Linatzetan).

Indibidualtasun markagailuari dagokionez, aztertutako hiru hilobiratzeak hilobiratze indibidualei dagozkie, hau azken ehiztari-biltzaileen ohiko hileta erritua izanik. Azkenik, hilobi-egiturei dagokienez, hirurak lurtean zuzenean depositatuak izan ziren, J3-ko gizabanakoa seguruenik lotua izan zelarik.

## 5.2.- Neolitoa

Neolitoaren etorrerak, neolitizazio prozesuarekin eta *pack neolitikoarekin* batera aldaketak ekarriko ditu ehiztari-biltzaile diren gizarteetara, gizarte ekoizleetara igaroraraziz. Berrikuntza hauek gizartearen egituraketan, eta beraz hileta errituetan ere, aldaketak ekarriko dituzte. Euskal Herriko hilobiratze neolitikoen lehen zantzuak hobi-zelai tipologiako aztarnategietan ditugu, banakako hilobiratzeak direnak. Nafarroako Los Cascajos, Paternainbidea eta El Llano del Montico dira honen adibideak. Kronologia berantiarragoa baina banakako hilobiratzeak izaten jarraitzen dutenak ere badaude; horien artean, Fuente Hoz eta Kobaederra. Hauek, ordea, hedapenean dagoen erritu kolektiboaren garaikideak dira (Armendariz, 1992). Ehorzketa kolektibo hauek, egitura megalitikoak - La Chabola de la Hechicera eta San Martin, adibidez – edo haitzuloak izan daitezke; adibide bezala, Las Yurdinas II, Los Husos I eta II, Peña Larga, La Peña de Marañon eta San Juan Antem Portam Latinam (SJAPT).


Atal honetako analisisa, 13 aztarnategiri dagozkion 643 gizabanakoren inguruan bildutako datu arkeologikoetan oinarrituko da (II. Eranskina). Aztarnategi bakoitzean bildutako giza hezurren gainean gauzatutako azterketa antropologikoek 299 subjekturen (%46,5) sexua estimatzea ahalbidetu dute, gainontzeko 344ak (%53,5) heldu zehaztu gabeak (88 edo %13,7a) eta ez-heldu zehaztu gabeak (256 edo %39,8a) direlarik. Sexu maskulino eta femeninoa desberdindu ahal izan den 299 gizabanakoren artean, 116 (sexuatutakoen %38,8a) femenino edo femenino probable bezala eta 183 (sexuatutakoen %61,2a) maskulino edo maskulino probable bezala identifikatu dira. Bizirik dagoen biztanleria baten aurrean bageunden, sexu ratioa 158 izango litzateke; hau da, 158 gizonezko egongo liriteke 100 emakumeko, normalizat hartzen den ratioarekiko (105) alde handia erakutsiz.

Adinari dagokionez, aztertutako 643 gizabanakoetatik, 387 (%60,2a) helduak dira, 256 ez-helduren aurrean (%39,8a). Gizarte demografikoki arkaikoetan, haurren hilkortasun tasa %200-300 bitartean kokatzen da (Santa Cruz eta Calduch, 2018), biztanleria osoaren %30 eta %70 bitartean kokatzen direlarik autore batzuen aburuz, eta %40 eta %50 artean beste batzuen esanetan (Cinta, 2018). Beraz, gure erregistrotik lortutako datuek bat egiten duten espero diren zifrekin.



**3. Taula.** Gizabanako kopurua sexu eta adin taldeka hileta testuinguru neolitikoetan. GGK: Gutxiengo Gizabanako Kopurua; F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

Aztarnategia	Probintzia	GGK	F/F?	M/M?	ZG	EHZG
<b>El Llano de Montico</b>	Nafarroa	2	0	2	0	0
<b>Fuente Hoz</b>	Araba	9	1	6	0	2
<b>Kobaederra</b>	Bizkaia	1	0	1	0	0
<b>La Chabola de la Hechicera</b>	Araba	39	3	5	22	9
<b>La Peña</b>	Nafarroa	28	10	1	5	12
<b>Las Yurdinas II</b>	Araba	90	30	17	15	28
<b>Los Cascajos</b>	Nafarroa	36	4	23	6	3
<b>Los Husos I</b>	Araba	18	3	4	2	9
<b>Los Husos II</b>	Araba	18	5	2	0	11
<b>Paternainbidea</b>	Nafarroa	13	5	5	1	2
<b>Peña Larga</b>	Araba	30	7	3	8	12
<b>San Martin</b>	Araba	21	2	7	10	2
<b>SJAPL</b>	Araba	338	46	107	19	166
<b>GUZTIRA</b>		643	116	183	88	256



**3. Irudia.** Neolitoko aztarnategi bakoitzean sexuaturtako gizabanakoen ehunekoak taldeka. M/M: maskulino edo maskulino probablea; F/F?: femenino edo femenino probablea.

Subjektu femenino, maskulino, zehaztu gabeko heldu eta ez-heldu zehaztu gabeen azterketa aztarnategiz aztarnategi eginez (3. Taula eta 3. Irudia), hurrengo datuak lortzen ditugu. 13 aztarnategitatik bost kasutan ez-heldu zehaztu gabeen taldea gailentzen da, (La Chabola de la Hechicera, Los Husos I, Los Husos II, Peña Larga eta SJAPL), lautan maskulino edo maskulino probableena (El Llano de Montico, Fuente Hoz, Kobaederra eta Los Cascajos), bi kasutan heldu zehaztu gabeena (La Peña, San Martin) eta batean bakarrik femenino edo femenino probableena (Las Yurdinas II). Paternainbidean, ordea, subjektu femenino eta maskulinoek ehuneko bera erakusten dute. Beraz, esan dezakegu, adinari dagokionez ez-helduen taldea gailentzen dela, haurren hilkortasun maila handiarekin bat eginez. Sexu alderdiari begiratzen badiogu, ordea, subjektu maskulinoen taldea da gailentzen dena, eta ez bakarrik termino

orokorretan aurretik egin dugun bezala, baizik eta aztarnategi bakoitza bereiz aztertzen badugu ere.

Indibidualtasun markagailuaren bidez aztertutako 643 subjektuen artean, 30 (%4,7) dagozkie hilobiratze indibidualei, gainontzeko 613ak (%95,3) hilobiratze kolektiboetan depositatuak izan zirelarik (5. Taula). Sexu bereizketa eginez (4. Taula) datuek sexu maskulinoko subjektuen gehiengoa (25 edo %83,3 osotik) erakusten digute femeninoen aurrean (4 edo %13,3 osotik).

**4. Taula.** Sexuaren araberako gizabanakoen banaketa testuinguru kolektibo eta banakakoetan. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable.

	F/F?	M/M?
Banakakoa	4	25
Kolektiboa	112	158
GUZTIRA	116	183

**5. Taula.** Gizabanakoen banaketa sexu, adin eta testuinguru bakoitzerako subjektu kopuruaren arabera hilobiratze neolitikoen. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

Gizabanako kopurua hilobiratzeko	F/F?	M/M?	ZG	EHZG	Guztira	Aztarnategi kopurua
1	4	25	1	0	30	3
2	3	4	0	1	8	3
3	0	3	0	0	3	1
4	0	0	0	0	0	0
5	0	0	0	0	0	0
6	0	0	0	0	0	0
7	3	3	0	1	7	1
8	0	0	0	0	0	0
9	1	6	0	2	9	1
10	0	0	0	0	0	0
10+	105	142	87	252	57	8

Hala ere, fenomeno megalitikoa Neolito Berantiarrean ematen dela kontuan hartzen badugu, eta datuak K.a.-ko VI. eta V. mendeak alde batetik, eta K.a.-ko IV. mendea bestetik bereiztuz aztertzen baditugu, egoera desberdin ikusi dezakegu. Izan ere, banakako hilobiratze guztiak (30) K.a.-ko VI-V bitartean koka ditzakegu, bai eta bi gizabanako (zortzi guztira), hiru (hiru guztira) eta zazpi (zazpi guztira) biltzen dituztenak ere. Modu honetan, banakako hilobiratzeek %68a osatuko lukete. Bederatzi eta hamarretik gorako hilobiratze kolektiboak, ordea, Neolito Berantiarrean koka ditzakegu, Kalkolito garaian berrerabilpenak izanez eta hilobiratzeen %100 izanez. Modu honetan, erritu batetik besterako garapena oso argi ikusten da.

**6. Taula.** Hileta-egituraren araberako hilobiratze neolitikoetako gizabanakoen banaketa sexu eta adinaren arabera. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

EGITURA	F/F?	M/M?	ZG	EHZG	GUZTIRA
Hobia	9	30	7	5	51
Fosa	0	1	0	0	1
Deposizioa harpe/koban	102	140	49	240	531
Megalittoa	5	12	32	11	60

6. Taulan ikusten den bezala, gehien erabilitako hileta-egitura harpe edo kobazuloan zuzenean egindako deposizioari dagokio (531 edo %82,6). Honi, egitura megalitikoek (60 edo %9,3) eta hobiek (51 edo %7,9) jarraitzen diete hurrenez hurren. Azkenik, fosa-egituraren adibide bakarra daukagu (bat edo %0,2) Sexu eta adinari dagokionez, azken egitura honek izan ezik, zeinetan sexu maskulinoko gizabanako bat hilobiratuta dagoen, gainontzeko guztiek adin eta sexu guztietako indibiduoak biltzek dituzte. Hala ere, aipagarria da harpe edo koban egindako deposizioetako haur kopuru handia (240 edo %4,2).

### 5.3.- Kalkolitoa

Esan bezala, Kalkolitoan zehar erritu kolektiboaren garapena eta goren uea ematen da, bai egitura megalitikoaren bidez - Alto de la Huesera, El Sotillo eta Longar - bai eta haitzuloetan aurrera eramandako deposizio kolektiboaren bidez - Abauntz, Iruaxpe I, Nardakoste IV, Pico Ramos, Santimamiñe eta Urtao II-. Hala ere, hilobiratze indibidualen bi adibide ere izanen ditugu, Las Orcillas I eta Karea.


Atal honetako analisisia, 11 aztarnategiri dagozkion 425 gizabanakoren inguruan bildutako datu arkeologikoetan oinarrituko da (III. Eranskina). Aztarnategi bakoitzean bildutako giza hezurren gainean gauzatutako azterketa antropologikoek 219 subjektoren (%51,5) sexua estimatzea ahalbidetu dute, gainontzeko 206ak (%48,5) heldu zehaztu gabeak (76 edo %17,9a) eta ez-heldu zehaztu gabeak (130 edo %30,6a) direlarik. Sexu maskulino eta femeninoa desberdindu ahal izan den 219 gizabanakoren artean, 103 (sexuatutakoen %47a) femenino edo femenino probable bezala eta 116 (sexuatutakoen %53a) maskulino edo maskulino probable bezala identifikatu dira. Bizirik dagoen biztanleria baten aurrean egonez gero, sexu ratioa 113 izango litzateke; hau da, 113 gizonezko egongo liriateke 100 emakumeko, normaltzat hartzen den ratioa (105) zertxobait gaindituz.

Adinari dagokionez, aztertutako 425 gizabanakoetatik, 295 (%69,4a) helduak dira, 130 ez-helduren aurrean (%30,6a). Aurretik aipatu bezala, haurren hilkortasun tasa handia kontuan harturik, eta autore batzuek hauek gizartean duten ehunekoa %30-%70 eta beste batzuek %40-%50 artean kokatzen badute ere, esan daiteke aztergai izan dugun Kalkolito garaiko erregistroa bateragarria dela hein handi batean biztanleria demografikoki natural batekin.

Subjektu femenino, maskulino, zehaztu gabeko heldu eta ez-heldu zehaztu gabeen azterketa aztarnategiz aztarnategi eginez (7. Taula eta 4. Irudia), hurrengo datuak lortzen ditugu. 11 aztarnategitatik seitan maskulino edo maskulino probableen taldea gailentzen da (Abauntz, El Sotillo, Karea, Las Orcillas I, Nardakoste IV eta Santimamiñe), hiru kasutan ez-heldu zehaztu gabeena (Iruaxpe, Longar eta Pico Ramos), kasu batean heldu zehaztu gabeena (Urtao II) eta batean bakarrik femenino edo femenino probableena (Alto de la Huesera). Beraz, gizabanako maskulinoak gehiengoak dira gainontzeko taldeekiko eta bereziki, emakumeekiko; ez bakarrik termino orokorretan baizik eta aztarnategika aztertuz ere.

**7. Taula.** Gizabanako kopurua sexu eta adin taldeka hileta testuinguru Kalkolitikoetan. GGK: Gutxiengo Gizabanako Kopurua; F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

<b>Aztarnategia</b>	<b>Probintzia</b>	<b>GGK</b>	<b>F/F?</b>	<b>M/M?</b>	<b>ZG</b>	<b>EHZG</b>
<b>Abauntz</b>	Nafarroa	108	41	47	20	0
<b>Alto de la Huesera</b>	Araba	79	38	23	3	15
<b>El Sotillo</b>	Araba	13	0	6	5	2
<b>Iruaxpe I</b>	Gipuzkoa	15	0	2	5	8
<b>Karea</b>	Gipuzkoa	1	0	1	0	0
<b>Las Orcillas I</b>	Nafarroa	1	0	1	0	0
<b>Longar</b>	Nafarroa	38	8	12	4	14
<b>Nardakoste IV</b>	Gipuzkoa	14	2	6	1	5
<b>Pico Ramos</b>	Bizkaia	104	12	12	8	72
<b>Santimamiñe</b>	Bizkaia	6	1	3	2	0
<b>Urtao II</b>	Gipuzkoa	46	1	3	28	14
<b>GUZTIRA</b>		425	103	116	76	130



**4. Irudia.** Kalkolitoko aztarnategi bakoitzean sexuaturako gizabanakoen ehunekoak taldeka. M/M?: maskulino edo maskulino probalea; F/F?: femenino edo femenino probalea.

Individueltasun markagailuari dagokionez (8. eta 9. Taulak), aztertutako 425 subjektuen artean, bi bakarrik (%0,47) dagozkio hilobiratze indibidualei, gainontzeko 423ak (%99,53) hilobiratze kolektiboetan depositatuak izan zirelarik. Sexu bereizketa eginez (5. Taula), beraz, lortzen ditugun datuak urriak dira. Sexu maskulinoarekin identifikatutako bi gizabanakoren hilobiratze indibidualak dauzkagarik.

**8. Taula.** Sexuaren arabera gizabanakoen banaketa testuinguru kolektibo eta banakakoetan. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable.

	F/F?	M/M?
Banakakoa	0	2
Kolektiboa	103	114
GUZTIRA	103	116

**9. Taula.** Gizabanakoen banaketa sexu, adin eta testuinguru bakoitzerako subjektu kopuruaren arabera hilobiratze kalkolitikoetan. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

Gizabanako kopurua hilobiratzeko	F/F?	M/M?	ZG	EHZG	Guztira	Aztarnategi kopurua
1	0	2	0	0	2	2
2	0	0	0	0	0	0
3	0	0	0	0	0	0
4	0	0	0	0	0	0
5	0	0	0	0	0	0
6	1	3	2	0	6	1
7	0	0	0	0	0	0
8	0	0	0	0	0	0
9	0	0	0	0	0	0
10	0	0	0	0	0	0
10+	102	111	74	130	417	8

Garai honetarako bildutako 425 gizabanakoak egitura-mota anitzetan hilobiratuak izan ziren, Kalkolitoko hileta testuinguruetako heterogeneotasunaren eta areagotzen doan hileta erregistroaren konplexutasunaren adierazle, zeina aldiak aurrera egiten duen heinean garaiko gizartearen konplexutasunaren areagotzearekin paraleloan doan.

**10. Taula.** Hileta-egituraren arabera hilobiratze kalkolitikoetako gizabanakoen banaketa sexu eta adinaren arabera. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

EGITURA	F/F?	M/M?	ZG	EHZG	GUZTIRA
Deposizioa harpe/koban	32	43	61	89	225
Zista koban	13	16	2	7	38
Fosa koban	12	16	1	3	32
Megalittoa	46	41	12	31	130

Azterketarako, lau kategoria (10. Taula) ezarri ditugu. Guztietan sexu eta adin guztietako taldeen errepresentazioak ditugu. Era orokor batean, harpe edo kobazuloetan zuzenean depositatuz hilobiratutakok dira gehiengoak (225 edo %53). Hauen atzetik, egitura megalitikoetan hilobiratutakoak ditugu (130 edo %30,5). Hala ere, kontutan hartu behar da Neolitoaren garaia aztertutako megalitoei Kalkolitoan zehar ere erabilera izan zutela, hilobiratzearen gehiengoa garai honetan gauzatu. Azkenik, nahiko parekatuta, kobazulo barneko zista bidezko (38 edo %9) eta fosa bidezko (32 edo %7,5) hilobiratzeak ditugu.

#### 5.4.- Brontze Aroa

Brontze Aroaren bukaeran osatzen da hilobi megalitiko eta kobazuloetan aurrera eramandako hilobiratze kolektiboetatik banakako hilobiratzeetarako trantsizioa. Horrela, erritu kolektiboak identifikatzen jarraitzen badugu ere – Gobaederra, Urbiola eta Urratxa III -, hilobiratze indibidualak identifikatzen hasiko gara modu orokorrago batean. Bai haitzulo barnean – Padre Areso, adibidez – bai aire zabaleko hobi – Cortecampo II eta Osaleta – eta zistetan – Bagargi-. Edo San Pelayo IV-ren kasuan, aurreko bi tipologietako aire zabaleko hilobiratze indibidualetan.

Atal honetako analisia, zortzi aztarnategiri dagozkion 128 gizabanakoren inguruan bildutako datu arkeologikoetan oinarrituko da (IV. Eranskina). Aztarnategi bakoitzean bildutako giza hezurren gainean gauzatutako azterketa antropologikoei 95 subjekturen (%74,2) sexua estimatzea ahalbidetu dute, gainontzeko 33ak (%25,8) heldu


zehaztu gabeak (5 edo % 3,9a) eta ez-heldu zehaztu gabeak (28 edo %21,9a) direlarik. Sexu maskulino eta femeninoa desberdindu ahal izan den 95 gizabanakoren artean, 28 (sexuatutakoen %29,5a) femenino edo femenino probable bezala eta 67 (sexuatutakoen %70,5a) maskulino edo maskulino probable bezala identifikatu dira. Bizirik dagoen biztanleria baten aurrean egonez gero, sexu ratioa 239 izango litzateke; hau da, 239 gizonezko egongo liriteke 100 emakumeko, 105eko ratioa bikoiztuz eta gaindituz.

Adinari dagokionez, aztertutako 128 gizabanakoetatik, 100 (%78,1a) helduak dira, 28 ez-helduren aurrean (%21,9a). Ez-helduen ehuneko biztanleria demografiko natural batean espero diren tasen (gutxienez %30 edo %40) azpitik geratzen da, beraz, esan dezakegu aztertu ditugun datuak biztanleria natural baten adierazgarri izatetik urruntzen direla.

**11. Taula.** Gizabanako kopurua sexu eta adin taldeka Brontze Aroko hileta testuinguruetan. GGK: Gutxiengo Gizabanako Kopurua; F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

<b>Aztarnategia</b>	<b>Probintzia</b>	<b>GGK</b>	<b>F/F?</b>	<b>M/M?</b>	<b>ZG</b>	<b>EHZG</b>
<b>Bagargi</b>	Zuberoa	1	1	0	0	0
<b>Cortecampo</b>	Nafarroa	1	0	1	0	0
<b>II</b>						
<b>Gobaederra</b>	Araba	81	21	49	0	11
<b>Osaleta</b>	Nafarroa	2	1	0	0	1
<b>Padre Areso</b>	Nafarroa	1	1	0	0	0
<b>San Pelayo</b>	Nafarroa	3	0	1	0	2
<b>IV</b>						
<b>Urbiola</b>	Nafarroa	35	4	15	4	12
<b>Urratxa III</b>	Gipuzkoa	4	0	1	1	2
<b>GUZTIRA</b>		128	28	67	5	28

Subjektu femenino, maskulino, zehaztu gabeko heldu eta ez-heldu zehaztu gabeen azterketa aztarnategiz aztarnategi eginez (11. Taula eta 5. Irudia), hurrengo datuak lortzen ditugu. 8 aztarnategititik hirutan maskulino edo maskulino probableen taldea gailentzen da (Cortecampo II, Gobaederra, Urbiola), bi kasutan ez-heldu zehaztu gabeena (San Pelayo IV eta Urratxa III) eta bi kasutan femenino edo femenino probableena (Bagargi, Padre Areso), biak banakako hilobiratzeak direlarik. Osaletan, berriz, sexu femenino eta ez-heldu zehaztu gabea berdindurik ageri dira. Beraz, subjektu maskulinoak gailentzen dira gainontzeko taldeekiko.



**5. Irudia.** Brontze Aroko aztarnategi bakoitzean sexuaturtako gizabanakoen ehunekoak taldeka. M/M?: maskulino edo maskulino probablea; F/F?: femenino edo femenino probablea.

Indibidualtasun markagailuaren bidez, aztertutako 128 subjektuen artean, sei (%4,7) dagozkio hilobiratze indibidualei, gainontzeko 122ak (%95,3) hilobiratze kolektiboetan depositatuak izan zirelarik (13. Taula). Aztarnategi proportzioari begiratzen badiogu, ordea, banakako hilobiratzean biltzen dituztenen kopurua eta hilobiratze kolektiboak biltzen dituztenena berdina da: lau bakoitzerako. Sexu bereizketa eginez (12. Taula), beraz, lortzen ditugun datuak urriak dira. Sexu femeninoarekin identifikatutako bi gizabanakoren eta sexu maskulinoarekin identifikatutako beste biren hilobiratze indibidualak dauzkagularik.

**12. Taula.** Sexuaren arabera gizabanakoen banaketa testuinguru kolektibo eta banakakoetan. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable.

	F/F?	M/M?
Banakakoa	2	2
Kolektiboa	26	66
GUZTIRA	28	67

**13. Taula.** Gizabanakoen banaketa sexu, adin eta testuinguru bakoitzerako subjektu kopuruaren arabera Brontze Aroko hilobiratzeetan. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

Gizabanako kopurua hilobiratzeko	F/F?	M/M?	ZG	EHZG	Guztira	Aztarnategi kopurua
1	2	2	0	2	6	4
2	1	0	0	1	2	1
3	0	0	0	0	0	0
4	0	1	1	2	4	1
5	0	0	0	0	0	0
6	0	0	0	0	0	0
7	0	0	0	0	0	0
8	0	0	0	0	0	0
9	0	0	0	0	0	0
10	0	0	0	0	0	0
10+	25	64	4	23	116	2



**14. Taula.** Hileta-egituraren arabera Brontze Aroko hilobiratzeetako gizabanakoen banaketa sexu eta adinaren arabera. F/F?: femenino edo femenino probable; M/M?: maskulino edo maskulino probable; ZG: zehaztu gabea; EHZG: ez-heldu zehaztu gabea.

EGITURA	F/F?	M/M?	ZG	EHZG	GUZTIRA
Hobia	1	1	0	2	4
Fosa	0	0	1	0	1
Deposizioa harpe/koban	4	12	5	18	39
Estruktura negatiboa harpean	1	0	0	0	1
Zista	1	1	0	0	2
Daturik gabe	21	49	0	11	81

Azterketarako, sei kategoria (14. Taula) ezarri ditugu. Era orokor batean, “daturik gabekoak” kenduta, harpe edo kobazuloetan zuzenean depositatuz hilobiratutakok (39 edo %30,5) dira gehiengoak, hilobiratze kolektiboei dagozkionak orokorrean. Ondoren, hobia, zista, fosa eta harpean egindako estruktura negatiboak ditugu hurrenez hurren. Aipatu behar da, “daturik gabe” kategoria Gobaederrari dagokiola, zeinetan azterketa antropologikoak egin badira ere, ez den zehazten gizabanako bakoitza identifikatutako hiru egituretako zeini dagokion.

## 6.- Ondorioak

Gure lanak, proposamen bat izatea izan du xede; hau da, hileta errituak ikuspuntu berri batetik, generoaren ikuspuntutik kasu honetan, aztertu ahal izateko lehen zantzu eta pintzeladak eskaintzea izan du helburu, oinarri teorikoak xedatu eta bilaketa bibliografikoan sakondu ondoren aurrera eraman daitezkeen azterketa praktikoko batzuen adibideak eskainiz (hiru, gure kasuan). Horrela ba, gure azterketatik lortutako helburuak ez dira ez osotuak ez zehatzak izan, hainbat alderdi aztertu gabe utzi baititugu, azterketa berri eta sakonagoi bidea irekita utziz. Hala ere, jorratuko ditugun alderdietan ahalik eta gehien sakontzen ahalegindu gara, datuek erakusten dizkiguten emaitzak ongi interpretatzen ahaleginduz.

Pertsona batek hil ondoren partaide den gizartearen barruan jasotzen duen hileta-tratamendua mota askotako faktoreek baldintzatuta egon daitekeela defendatu dugu gure lanean zehar. Faktore hauek, sexu/generoa, adina, familia-taldea, gizarte-estatusa, klasea, erlijioa, etab. izan daitezke. Hileta-praktiken heterogeneotasunaren adibide arkeologikoak ugariak dira: gizarte batzuek haien hileta jarduera gizonezko helduentzat

murrizten dute, beste batzuek, hilobiratutako pertsonaren sexuaren araberrako seinaleak ezartzen dituzte, edo helduak nekropolietan errausten dituzten bitartean adin txikikoak etxeko zoruen azpian ehorzten dituzten; hala nola , Burdin Arorako (VI. Anexoa) aztertu ditugun Sansol, Las Eretas, Atxa eta La Hoya aztarnategietan. Hauek, erditze orduko hilkortasun maila handia erakustez gain, hurrei emandako tratamendu sozial desberdindua erakusten digute.

Garai bakoitzeko sexu ratioa aztertuz, ikusi dugu nola Neolito eta Brontze Arorako egiaztatutako balioek, 158 eta 239 hurrenez hurren, naturalizat hartutako balioak soberan gaintitzen dituzten, honen arrazoia aukeraketa kultural bat izan daitekeelarik. Kalkolitorako lortutako balioak (113), ordea, demografia natural batekiko baliokide gisa hartu daiteke. Aurkeztutako datuetatik abiatuta, bistakoa dirudi Euskal Herriko historiaurreko hileta-erregistroan ematen den sexu maskulinoaren gain-errepresentazioa edo sexu femeninoaren infra-errepresentazioa. Gure lanaren helburua emakumeen aurrean gizonezkoek hileta erritueta izan zuten sarbide sarriagoaren arrazoia azaltzea ez bada ere, praktika eta hautaketa horien zergatiak sozialak edo kulturalak izan zirela esatea egokitzat jotzen dugu. Hala ere, kontuan izatekoa da metodo antropologikoei jarraiki sexuatu ezin izan diren helduen taldea eta hura osatzen duten gizabanakoen kopurua.

Era berean, sexuaturako gizabanakoek azterketak antzeko ondorioak eskaintzen dizkigu, 1.199 gizabanakotik 248 femenino edo femenino probable (F/F?) eta 367 maskulino edo maskulino probable (M/M?) direlarik. Analisia garaika lehenengo, eta aztarnategiz aztarnategi ondoren eginez gero, subjektu maskulinoak gailentzen dira femeninoen gainetik, Neolito eta Brontze Aroan kopuruak bikoitzen dituztelarik. Kalkolitoan, ordea, sexu ratioarekin gertatzen den antzera, desberdintasun hau murriztu egiten da. Ondorio hauek galdetzera eramaten dute ea hilobiatze kolektiboek berarekin ekar dezaketen tratamendu sozial parekideago bati dagokion hala ez.

Adinari dagokionez, gizarte demografikoki arkaikoetan hurren hilkortasun tasa %200-300 bitartean kokatzen da (Santa Cruz eta Calduch, 2018), biztanleria osoaren %30 eta %70 bitartean kokatzen direlarik autore batzuen aburuz, eta %40 eta %50 artean beste batzuen esanetan (Cinta, 2018). Beraz, gure erregistrotik lortutako datuek

bat egiten duten historiaurreko demografia natural batekin, Brontze Aroan izan ezik non ez-helduak %21,9a diren.

Indibidulatasun markagailuek sexu eta adinaren araberako desberdintasunik badagoen aztertzea ahalbidetzeaz gain, garai krono-kultural bakoitzean indarra daukan hileta errituaren berri ematen digu, hilobiratze kolektibo/indibidual dikotomia oinarritzat hartuta. Honen bidez, azken ehiztari biltzaileek eta Antzinako Neolitoan aurrera eramandako hilobiratze indibidualetatik, Neolito Berantiarrean hasitako eta Kakolitoan goren unea izandako hilobiratze kolektiboetarako trantsizioa aztertzeko aukera izan dugu adibideen bidez, Brontze Aroan zehar indibidualtasunerantz bueltatuz. Analisiaren datuek Neolitoko bakarkako hilobiratzeek sexu maskulinoko subjektuen gehiengoa (25 edo %83,3 osotik) erakusten digute femeninoen aurrean (4 edo %13,3 osotik), Kalkolitoan sexu maskulinoko bi gizabanako soilik hilobiratu direlarik indibidualki, Mesolitorako eta Brontze Arorako proportzioak parekideak direlarik.

Azkenik, hileta-egiturei dagokienez, hauen tipologiaren aniztasuna aipatu behar dugu –hobiak, fosak eta zistak aire zabalean edo kobazulo/harpe barnean, egitura megalitikoak, zuzeneko deposizioa eta errausketa, beste batzuen artean-, denboran bat egiten dutelarik, garaika tipologia zehatz baten edo batzuen nagusitasuna ematen bada ere. Sexu eta adinari dagokionez, ordea, ez dugu era orokor batean tratamendu desberdindurik identifikatu, hileta-egitura bakoitzak zehaztutako talde guztiak biltzen dituelarik. Hala ere, harpe eta kobazuloetan zuzenean depositatutako ez-helduen kopuru handia nabarmendu dezakegu, beste taldeen aurrean, gainerako egituretan proportzio hauekin alderatuz gutxiago direlarik.

### **Esker onak**

Eskerrak eman nahi nizkioke Jesus Sesma Sesmari Nafarroako datu arkeologikoen bilaketan sakontzeko eskaintako laguntzogatik eta Naroa Garcia Ibaigarriagari, nire tutoreari, bere gomendio eta zuzenketengatik eta lana modu egokian bideratzen laguntzeagatik.

### **Iturri bibliografikoak**

**Andrés, M.T.**, 2003. El concepto de la muerte y el ritual funerario en la prehistoria, *Cuadernos de Arqueología*, 11:13-36.

**Armendariz, A.**, 1992. La idea de la muerte y los rituales funerarios durante la Prehistoria del País Vasco, *Munibe*, 8: 13-32.

**Cinta, M.**, 2018. *La Desigualdad de Género en la Prehistoria Ibérica: Una aproximación Multi-Variable*, Doktore tesia, Sevilla: Universidad de Sevilla.

**Diez, F.**, 2014. Muerte, prácticas mortuorias y simbolismo en el proceso de evolución humana. Non: Guerra Doce, E. eta Fernández Manzano J. (eds) *La muerte en la prehistoria ibérica. Casos de estudio*, Ediciones Universidad de Valladolid, Valladolid, 13-47.

**Hernando, A.**, 2005. ¿Por qué la Historia no ha valorado las actividades de mantenimiento?, *Treballs d'Arqueologia*, 11: 115-133.

**Montón, S.**, 2012. Muerte y género en la Prehistoria española. Non: Prados Torreira, L., López Ruiz, C. eta Parra Camacho, J. (eds) *La Arqueología funeraria desde una perspectiva de género*, Ediciones UAM, Madrid, Colección de Estudios 145: 21-37.

**Prados, L., Lopez, C., Parra, J.**, 2012. *La Arqueología funeraria desde una perspectiva de género*, UAM, Madrid, Colección de Estudios 145: 7-19.

**Santa Cruz, A., Calduch, P.**, 2018. Paleodemografía prehistórica: reflexiones sobre la metodología aplicada al estudio de algunos sepulcros colectivos de la Península Ibérica. *BSAA arqueología*, LXXXIV: 71-93.

## I. Eranskina. Lehendabiziko hilobiratzeak. Lanean aztertutako aztarnategien informazio.

**Aizpea** Nafarroako Pirinio inguruko mendietan kokaturiko harpe dugu, non 30 urte inguruko emakumezko baten gorpua aurkitu zen (1. Irudia), 6600±50 BP datazioa eman zuena (Cava, 1993).

Gorputz-adarrak tolesturik, alboko-jarreran eskuineko aldearen gainean eta burua hegoalderantz orientatua utzia izan zen. Hezurak konexio anatomikoen agertu ziren, gainjarritako lurren presioak eraginda mugitutako hainbat hezur kenduta. Ikerlarien aburuz, fosarik gabe zuzenean lurraren gainean jarria izan zen, ondoren harrizko blokeen pilaketaren bidez estaliz. Ez zen inolako haturik identifikatu (Arias, 2014).



1. **Irudia.** Lurrean zuzenean jarritako emakume baten ehorzketa Aizpean (Nafarroa). Iturria: Cava, 1993.

**Linatzeta** (Gipuzkoa) Deba udalerriko Kabelu mendian kokaturiko kobazuloa da. Bertan 7315±35 BP dataturiko sei hilabete baino gutxiagoko haur baten hilobiratzea identifikatu zen (Tapia, et al. 2008). Ez da inolako estruktura edo fosarik identifikatu eta beraz zuzenean lurrean depositatutako hilobiratze bati dagokiola uste da. Hilotza, konexio anatomikoan eta *in situ* zapalduta ageri da, antzua den maila buztintsu batek estalia.

**J3** (Gipuzkoa) Jaizkibeleko mendilerroan kokaturiko harpea dugu, zeinetan 8300±50 BP-rekin dataturiko gizonezko heldu gazte baten ehorzketa identifikatu zen bertako maskortegian, Hego Euskal Herrian erregistratutako hilobiratze zaharrena bihurtuz. Azterketa antropologikoez 30-40 urte bitarteko gizabankotzat identifikatu zuten, hainbat hezurrek jasotzen duten desgastea kontuan harturik (Iriarte, et al. 2005). Hilotza eskuinalderantz, fetu-jarreran eta gorputz-adarrak flexionaturik depositatua izan zen. Modu honetan, suposatu daiteke gorpua lotu edo bildu egin zela depositatu aurretik, prozesu posdeposizionalean galduko zena. Lehen mailako deposizio baten aurrean geundeke.

### **Iturri bibliografikoak**

**Andrés, T.**, 1977. Las estructuras funerarias del Neolítico y Eneolítico en la Cuenca Media del Ebro. Consideraciones críticas, *Príncipe de Viana* 38, 46: 65-130.

**Arias, P.**, 2014. La muerte entre los cazadores-recolectadores. El comportamiento funerarios en la Península Ibérica durante el Paleolítico Superior y el Mesolítico. Non: Guerra Doce, E. eta Fernández Manzano J. (eds) *La muerte en la prehistoria ibérica. Casos de estudio*, Universidad de Valladolid, Valladolid, 49-75.

**Cava, A.**, 1993. El yacimiento de Aizpea: información de las campañas de 1991 y 1993, *Trabajos de Arqueología Navarra*, 11: 255-260.

**Iriarte, M.J., Arrizabalaga, A., Etxeberria, F., Herrasti, L.**, 2005. La inhumación humana en conchero de J3 (Hondarribia, Guipuzkoa), *Actas del III Congreso del Neolítico en la Península Ibérica*, 607-613.


**Ramos, M.**, 2009. Arqueología en la Autovía del Camino, *Trabajos de Arqueología Navarra*, 21: 5-119.

**Tapia, J., Alvarez, E., Cubas, M., Cueto, M., Etxeberria, F., Gutierrez, I., Herrasti, L., Ruiz, M.**, 2008. La cueva de Linatzeta (Lastur, Deba, Gipuzkoa) Un nuevo contexto para el estudio del Mesolítico en Gipuzkoa, *Munibe*, 59: 119-131.

## II. Eranskina. Neolito garaiko hileta errituak. Lanean aztertutako aztarnategien informazioa.

**Los Cascajos** (Nafarroa) Odron ibaiaren terrazan kokaturiko aztarnategia da, Kodes mendilerroaren eta Ebro ibaiaren artean hain zuzen ere. 1995, 1996 eta 2008 urteetan aurrera eramandako indusketa kanpainetan zirkulu formako 550m<sup>2</sup>-tan multzokatutako 23 hilobiratze hobi identifikatu ziren, herrixkaren barneko nekropoli gisa definituz (Beguiristain et al., 2010). Bestalde, herrixkaren barnean aurrera eramandako lau hektareatan beste 11 ehorzketa hobi aurkitu ziren (2. Irudia). C14 datazioen bidez 6230±50 eta 6185±45 BP datak lortu dira (Rojo et al., 2016).

Azterketa antropologikoetatik lortutako datuak hurrengoak dira: (1) 34 hilobiratze hobietan 36 gizabanako identifikatu dira. (2) Ehorzketak orokorrean indibidualak dira, hiruren salbuespenarekin, garai bereko binakako ehorzketak izango liratekeelarik. (3) Sexu maskulinoarekin identifikatutakoen gailentzea, 23 guztira (%63,88), sexu femeninokoen aurrean, lau guztira (%11,11). (4) Adinari dagokionez, 33 heldu-gazte (%91,7) eta hiru haur (%8,3) identifikatu dira. (5) Ehorzketen %66a hegoalde edo mendebalderantz orientatuta dago. (6) Jarrera-tolestuan ehortzitako gorpuak dira, %60a albo baten gainean eta %30 bizkar gainean (Ibidem).



**2. Irudia.** Los Cascajos hobi-zelaiko ehorzketa bat. Iturria: Beguiristain, et al. 2010.

**Paternainbidea** (Nafarroa) Iruñerriko hego-mendebadeko Arga ibaiaren hirugarren terrazan kokaturiko aztarnategia da. 1997an 2420m<sup>2</sup> industu ziren, zeinetan Neolitotik Brontze Arora bitarteko erabilera desberdinetako 34 egitura negatibo identifikatu ziren (Ibidem). Horietatik lauk, Neolito garaiko hilobiratzeekin bat egiten dute, 50m<sup>2</sup>-ko esparruan multzokatuak.

Hala ere, hileta eremuaren dimentsio eta ezaugarriak ez dira definiturik geratzen, kanpaina arkeologiko gehiago behar baitira horretarako. C14 datazioen bidez, 6090±40 eta 5960±4 BP datak lortu dira 1. hobiko 2. gizabanakoan eta 2. hobiko A gizabanakoetan.

Lau hobietako hilobiratzeetan aurrera eramandako azterketa antropologikoetatik hurrengo emaitzak atera daitezke: (1) 13 gizabanako identifikatu ziren, 1. hilobiratzean zazpi eta gainontzeko hilobiratze egitura bakoitzean bi. (2) Gizabanakoen %70aren sexua diagnostikatu zen, %50 femeninoak eta %50 maskulinoak. (3) Hilobiratutakoen adinari dagokionez, 11 helduak eta 2 haurrak dira (Ibidem).

**El Llano del Montico** (Nafarroa) Elomendi-Izko udalerrien artean kokatzen den aztarnategia da, Izaga mendiaren magalean, Nafarroa erdialdean. 2007an 20.000 m<sup>2</sup> ikertu ziren. Bertan, historiaurreko kronologia desberdinetako eta erabilera desberdinetako 109 hobi identifikatu ziren, seik ehorzketa erabilera zutelarik, hilobi bezala definituz. Neolitotik Brontze Arora bitarteko garai kultural desberdinekin identifikatutako hobiak badira ere, antzeko ezaugarriak dituzte (Ibidem). 6. hilobiratzea da Antzinako Neolitoari dagokiona eta azterketa gehien planteatu dituen, 6125±30 BP datatua.

Ehorzketa hau, 1,15 metroko diametroa duen hobi bati dagokio, zeinaren barruan bi gizabanakoren aztarna partzialak aurkitu ziren. Lehenengo gizabanako 30/40 urte bitarteko heldua da eta bigarrena 20/25 urte bitarteko gaztea, biak sexu maskulinoarekin identifikatu direlarik. Lehenengoaren hezurren %72a kontserbatu den bitartean, bigarrenaren %48a besterik ez da gelditu. Ikerlarien aburuz, bata bestaren ondoan egindako deposizio bikoitz baten aurrean gaude, lehenengo ehortzi zenaren nahita egindako erredukzioarekin (Ibidem), Paternainbideko 1. eta 3. hilobiratzeetan gertatzen den antzera.



**Kobaederra** (Bizkaia) kobazulo Kortezubiko udalerrian kokaturiko aztarnategia da, Oma harana inguratzen duten magalean, Urdaibai errekatik 3 km-tara. 1995ean aurrera eraman ziren indusketan K.a.-ko V. milurtekoaren bukaeran datatutako hilobiratze bat identifikatu zen. Fosa batean gauzatutako lehen mailako ehorzketa baten aurrean gaude, identifikatutako hezur askok alterazio postdeposizionalak jasan badituzte ere. Horrela, hezur batzuk posizio anatomikoan aurkitu ziren bitartean, beste asko nahasturik agertu ziren, eta gorpuaren ezker aldeko eta burualdeko hezur gehienak falta dira. 35-45 urte bitarteko heldu baten aurrean gaude, sexu maskulinokoa. Hilotza ahoz gora etzanda lurperatu zuten, fetu-jarreraren, eta arinki eskuinaldera makurtua, ekialdea eta mendebaldea seinalatuz. Ziurrenik hilotza lotuta edo bilduta egonen zen, material organikoekin egindako hilkutxa antzeko batean sartuta (González et al., 1999)

**Marizulo** (Gipuzkoa), 60. hamarkadan industua, sexu maskulinoko gizabanako baten hilobiratzea identifikatu zen,  $5285 \pm 65$  BP-n datatua. Gorpuaren jarreraren inguruan adituek emandako datuak eskasak badira ere, esan daiteke gorpua ekialdea eta mendebaldea seinalatuz kokatua zegoela, hiru harri handik estalia (González, et al. 1999). Hainbat autorek (Fernández, et al. 2010) lau gizabanako aipatzen badituzte ere, ezin izan dugu datu eguneratuetara sarbiderik izan. Hori dela eta, eta dugun informazioa osotua ez dela kontuan harturik, ez dugu Marizulo gure azterketan baliatuko.

**Fuente Hoz** (Araba) Ebroren Baia ibaiadarraren arroan kokaturiko haitzulo txikia da. Autopista eraikitzean aurrera eramandako obren haren kontserbazioan eragina izan bazuten ere, zati handi bat bere horretan mantendu da bere estratigrafia aberats eta zabala erakutsiz (Baldeón, 1983). Hiru azpi-maila desberdinetan multzokatutako hilobiratzeak identifikatu ziren. Beheko mailakoa fetu-jarreraren eta ekialde-mendebaldera lerrokaturik ageri den banakako ehorzketa bat den bitartean, erdiko mailan erlazio anatomikorik gabe dauden hiru gizabanako identifikatzen dira. Goiko mailan, berriz, bi gizabanakoren sakabanatutako arrastoak agertu ziren. Lehenengo bi mailetako hilobiratzeak  $5160 \pm 110$  eta  $5240 \pm 110$  BP-n daude datatuak. Horrela, adituen ustetan, hileta errituen bilakaera bat ikusi daiteke, banakako hilobiratzeetatik hilobiratze kolektiboetara doana (González, et al. 1999).

Azterketa antropologikoei dagokienez, burezurretan oinarrituz egin dira. Bederatziko Gutxiengo Indibiduo Kopurua (GGK) ezarri zen, tartea gehienez 14 gizabanakoetara zabalduz. Adinari dagokienez, sei gizabanako heldu bezala identifikatu

dira: hiru 20 urte ingurukoak, bat 30 urte ingurukoa eta bi 40 urte ingurukoak. Ez da haurren hezurrik identifikatu, bai ordea jaioberri bat eta nerabe bat. Sexuari dagokienez, denak maskulinoarekin identifikatu dira FH.4 gizabanakoa izan ezik. Hala ere, bi femur eta bi pelbis sexu femeninoarekin identifikatu dira. Ondorioen arabera, generazio desberdinetako nagusiki sexu maskulino eta adin helduko hilobiratzeen aurrean gaude (Basabe eta Bennassar, 1983).

**Los Husos I** (Araba) Kantabriar Mendilerroko hegoaldeko isurialdean kokatzen den harpea dugu. 1965 eta 1970 artea industua, 1999 eta 2001 urteen artean berrikusia izan zen. Hilobiratze erabilera III. mailari dagokio, zeina A eta B azpi-mailetan banatua dagoen eta hilobiratze kolektibo gisa zehaztu den (Fernández, 2016).

Analisi antropologikoen datuak. IIIA mailari dagokionez: (1) GGK 11 ezarri da (2) Horietatik, zapi ez-heldu (haur bat 0-6 urte bitartekoa, haur bat 7-12 urte bitartekoa eta bost nerabe 13-19 urte bitartekoak) eta lau heldu (hiru heldu eta zahar bat). (3) Helduei zehaztutako sexuari dagokionez, hiru maskulino eta bat femeninoa. IIIB mailari dagokionez: (1) GGK zazpi zehaztu da. (2) Horietatik, bi ez-heldu (haur bat 0-6 urte bitartekoa, haur bat 7-12 urte bitartekoa eta bi nerabe 13-19 urte bitartekoak) eta hiru heldu (bi gazte eta heldu bat). (3) Helduen artean, bi sexu femeninoarekin identifikatuak eta bat maskulinoarekin (Ibidem).

**Los Husos II**<sup>5</sup> (Araba) Los Husos I aztarnategiaren alboan kokaturiko harpe bat da, 2003 eta 2066 artean industua. Harkaitz azpiko harpe batean aurrera eramandako hobi bidezko errausketa kolektibo baten aurretan gaude, zeina III. mailan antzeman zen (Fernández, 2016).

Giza hezurren azterketatik ateratako datuak hurrengoak dira: (1) GGK 18 da. (2) Horietatik, 11 ez-heldu (feto bat, zazpi haur 0-6 urte bitartekoak, haur bat 7-12 urte bitartekoa eta bi nerabe 13-19 urte bitartekoak) eta zazpi heldu adin zehaztu gabekoak. (3) Helduen artean, bost sexu femeninokoak eta bi maskulinokoak dira (Ibidem, 2016).

**San Juan ante Portam Latinam** (Araba) Laguardia herritik hurbil identifikatutako harpe bat da. 1985, 1990 eta 1991. urteetan industua, bi sexu etako eta adin guztietako gizabanakoak biltzen dituen hilobiratze kolektibo baten aurrean gaude

---

<sup>5</sup> Harpe honen kronologia Kalkolitorako zehaztuta badago ere, Los Husos I-ekin duen hurbiltasuna dela eta, eta atal honetan Neolito bukaerako eta Kalkolito hasierako hilobiratzeak aztertzen ari garen heinean, egokia iruditu zaigu hemen sartzea.

(3. Irudia). Aztarnategi honen berezitasuna hainbat gizabanakotan identifikatzen ziren aztarnak dira, gehienbat gezi zauriekin loturikoak (Etxeberria, et al. 1999).  $4570\pm 40$  eta  $4325\pm 70$  BP artean<sup>6</sup> kokatzen den kronologiarekin bat egiten du aztarnategiak, Neolito bukaera eta Kalkolito hasierarekin bat eginez (Alday, et al. 2016).

Azterketa antropologikoak hurrengo datuak eskaintzen dizkigu: (1) GGK 338 gizabanakotan zehaztu da, burezurren zenbaketan oinarrituta. (2) Horietatik, 202 ez-helduak eta 136 helduak dira. (3) Sexu diagnostikoari dagokionez, 107 maskulino, 46 femenino eta 185 determinatu gabeak zehaztu dira (Fernández, 2007).



**3. Irudia.** SJAPT aztarnategiko hilobiratze kolektiboa GGK 338 zehaztu da. Iturria: Vegas, 2000.

**Las Yurdinas II** (Araba) harpea Kantabriako Mendilerroko inguruko iparraldeko mendietan kokaturiko aztarnategia da. 2000tik aurrera bertan aurrera eramandako indusketetan  $4390\pm 8$ ,  $4360\pm 40$ ,  $4290\pm 40$  BP dataturiko metatze hilobiratze kolektibo bat identifikatu zen hiru geruzatan banaturiko maila arkeologiko batean (Fernández-Crespo, 2016).

Azterketa antropologikoei dagokienez, lortutako datuak hurrengoak dira: (1) GGK 90 gizabanakotan zehaztu da. Horietatik, 37 ez-helduak dira (bi fetu, 16 haur 0-6 urte bitartekoak, 10 haur 7-12 urte bitartekoak eta bederatzi nerabe, 13-19 urte bitartekoak) eta 53 heldu (>20 urte) dira (28 gazte, lau heldu, bi zahar eta 19 zehaztu gabe). (3) Beheko masailezurraren morfologiari jarraiki, 30 sexu femeninoarekin eta 17 maskulinoarekin identifikatu dira heldu eta nerabeen artean (gainontzekoak alofiso edo determinatu gabeak) (Ibidem).

<sup>6</sup> SJAPL:  $4570\pm 40$ ,  $4520\pm 70$ ,  $4520\pm 50$ ,  $4510\pm 40$ ,  $4460\pm 70$ ,  $4440\pm 40$ ,  $4325\pm 70$  BP

**Peña Larga** (Araba) 1998tik bost kanpaina arkeologikotan industutako Kantabriako Mendilerroaren hegoaldeko isurialdean kokaturiko harpea da. Hilobiratzea III. mailari dagokio, zeinetan hezurren datazioaren bidez  $4470\pm 160$  BP data lortu zen.

Giza hezurren azterketatik hurrengo datuak atera ditzakegu: (1) GGK 30 zehaztu zen, masailezurren eta burezurren atzeko aldearen zenbaketa eginez ez-helduentzat, eta masailezurren zenbaketa soilik helduentzat. (2) Horietatik, 12 ez- helduak dira (zazpi haur 0-6 urte bitartekoak, bi haur 7-12 urte bitartekoak eta bi nerabe 13-19 urte bitartekoak) eta 18 heldu, gehienak adin determinatu gabekoak. (3) Helduen sexuari dagokienez, zazpi femeninoak, hiru maskulinoak eta zortzi zehaztu gabeak dira (Fernández-Crespo, 2016).

**La Peña de Marañón** (Nafarroa) harpea Nafarroako hego-mendebaldean kokaturiko aztarnategia da, Ega ibaiaren ezker aldeko bazterrean hain zuzen ere. 1991, 1992 eta 1993. urteetan industua, metatze ehorzketa kolektibo baten aurrean gaude. Hilobiratzei dagokien maila Neolito bukaera eta Kalkolito hasierarekin zehaztu zen, giza hezurak datatu ezin izan baziren ere kolageno falta zela eta (Cava eta Beguiristain, 1991).

Analisi antropologikoei dagokienez: (1) GGK 28 da, masailezurren zenbaketa bidez ezarria, ez-heldu baten kasuan izan ezik zeinetan burezurren atzeko aldea erabili zen. (2) Horietatik, 12 ez-helduak (sei haur 0-6 urte bitartekoak, bi haur 7-12 urte bitartekoak eta lau nerabe 13-19 urte bitartekoak) eta 16 gizabanako heldu (adina zehaztu gabea). (3) Helduen artean, 10 sexu femeninoarekin identifikatuak, bat maskulinoarekin eta bost identifikatu gabeak (Fernández-Crespo, 2016).


**La Chabola de la Hechicera** (Araba) 1936, 1947 eta 1974an industua, sarbidedun trikuharria da. Bertan antzemandako giza hezurren gainean egindako datazioetatik lortutako datarik zaharrena  $4940\pm 30$  BP datari dagokio. Gainontzeko datak, Kalkolitoari -  $4670\pm 40$  eta  $4380\pm 40$  BP - eta Brontze Aroari -  $3280\pm 40$  eta  $3170\pm 130$  BP – dagozkio (Fernandez eta Mujika, 2013).

Giza hezurren azterketaren emaitzak: (1) GGK 39 da. (2) Horietatik, 30 (76,92a) helduak diren bitartean, bederatzi ez-helduak (%23,07a) dira. (3) Helduen artean, bost sexu maskulinoarekin eta hiru femeninoarekin identifikatu dira (Fernández, 2007).

**San Martin** (Araba) 1964an industutako sarbidedun trikuharria da (4. Irudia). Trikuharriaren erabileraren hiru etapa edo aldi bereiztu dira, bigarrena (Neolito bukaera) eta hirugarrena (Kalkolito hasiera) hileta errituei dagozkielarik. Giza hezurren dataziotik  $4896\pm 32$ ,  $4806\pm 34$ ,  $4780\pm 31$  eta  $4800\pm 40$  BP datak lortu dira (Fernández, et al. 2015).

Analisi antropologikotik lortutako datuak: (1) GGK 21 da. (2) Horietatik, bi ez-heldu eta bederatzi heldu bezala identifikatuak. (3) Helduen artean, zazpi sexu maskulinoarekin eta bi femeninoarekin identifikatu dira (Fernández, 2007).

**Charracadian** (Nafarroa) Nafarroa erdialdeko Zirauki udalerrian aurkitzen den sarbidedun trikuharria dugu. 1999 eta 2000 urtean artean industua (Beguiristain, 2004),  $4530\pm 45$  BP,  $4504\pm 45$  BP,  $4010\pm 45$  BP,  $3960\pm 60$  BP datazioek Neolito bukaeran kokatzen dute hilobiaren erabilera, Kalkolitoan zehar berrerabili zelarik (Arroniz, 2017). Indusketak hasi aurretik jasan zuen espoliazioak eraginda, giza hezurak nahiko zatikatuak eta kontserbazio kaxkarrarekin agertzen dira. Giza hezur guztien azterketaren esperoan, biztanleria ez-helduaren azterketa egina dago soilik oraingoz. Hori dela eta, aztarnategi hau ez dugu gure analisisian sartuko. Azterketa antropologikoak eskainitako datuak: (1) GGK 66 DA. (2) Horietatik, 10 ez-helduak eta 56 helduak.



**4. Irudia.** San Martin sarbidedun trikuharria Araban. Iturria: Agirregomezkorta, 2018.

### Iturri bibliografikoak

**Agirregomezkorta, R.,** 2018. Dolmen de San Martin, <https://www.eitb.eus/usuarios/fotos/tiempo-naturaleza/detalle/27646088938/dolmen-san-martin/>, *EITB Fotos Usuarios*, Azken ikustaldia: 2020/05/08.

**Alday, A., Campos, A.R., Castañeira, N., Díaz, M., Domingo, J., Echeverria, A.M., Fernández, H., Mugica, B.,** 2016. 180 años después del primer dolmen. Reflexiones sobre el quién, el dónde y el cuándo del megalitismo del área vasca, *Estudios de Arqueología Alavesa*, 28: 29-45.

**Arroniz, L.,** 2017. La población infantil y juvenil inhumada en el dolmen de charracadía (Cirauqui, Navarra), Non: AHAB, *Los tiempos cambian, de la piedra al teclado*, X Jornadas de Jóvenes en Investigación Arqueológica, Burgos, 597-604.

**Basabe, J.M., Bennassar, I.,** 1983. Estudio antropológico del yacimiento de Fuente Hoz, *Estudios de Arqueología Alavesa*, 11: 77-119.

**Beguiristain, M.A.,** 2004. Restos esqueléticos en yacimientos prehistóricos de Navarra, *Cuadernos de Arqueología*, 12: 79-145.

**Beguristain, M.A., Sesma J., García, J.,** 2010. Formas funerarias en la Prehistoria reciente del Pirineo Occidental, *Munibe Suplemento*, 32: 226-248.

**Cava, A., Beguiristain, M.A.,** 1991. El yacimiento prehistórico del abrigo de la Peña (Marañón, Navarra), *Trabajos de Arqueología Navarra*, 10: 69-166.

**Etxeberria, F., Fernández, M.S., Zumalabe, Herrasti, L., Vegas, J.I., Armendariz, A.,** 1999. La sepultura colectiva de San Juan ante Portam Latinam (Laguardia, Álava), *SAGVNTVM Extra*, 2: 439-445.

**Fernández, J., Mujika, J.A., Peñalver, X.,** 2010. Hábitat y mundo funerario en la prehistoria reciente del País Vasco: nuevas evidencias, *Munibe Suplemento*, 32: 250-269.

**Fernández, T.,** 2007. Caracterización antropológica y tratamiento funerario de las poblaciones del Neolítico a la Edad del Bronce en la comarca de La Rioja: estado de la cuestión, *Munibe Suplemento*, 32: 421-424.

**Fernández-Crespo, T.**, 2016. El papel del fuego en los enterramientos neolíticos finales/ calcolíticos iniciales de los abrigos de la Sierra de Cantabria y sus estribaciones (valle medio-alto del Ebro), *Trabajos de Prehistoria*, 73, 1: 128-146.

**Fernández-Eraso, J., Mujika-Alustiza, J.A.**, 2013. La estación megalítica de La Rioja alavesa: cronología, orígenes y ciclos de utilización, *Zephyrus*, 71: 89-106.

**Fernández-Eraso, J., Mujika-Alustiza, J.A., Fernández, M.T.**, 2015. Sobre la cronología de los ídolos-espátula del dolmen de San Martín (Laguardia-Álava), *ARPI*, 3: 257-27.

**González, J.E., Courty, M.A., Peña, L.Z., de la Rúa Vaca, C., Estévez, J.J.I.**, 1999. La inhumación de Kobaderra en el contexto de los enterramientos neolíticos del País Vasco, *SAGVNTVM Extra*, 2: 447-452.

**Rojo, M.A., García, I., Garrido, R., Tejedor, C., Subirá de Galdácano, E., García, J., Sesma, J., Gibaja J.F., Unzu, M., Palomino, A.L., Jiménez, I., Arroyo E., Arcusa, H.**, 2016. Enterramientos del Neolítico antiguo en el interior peninsular: nuevos datos para la actualización de la evidencia empírica. Non: Bonet, H., (Coord.), *Del neolític a l'edat del bronze en el Mediterrani occidental: estudis en homenatge a Bernat Martí Oliver*, Diputación Foral de Valencia, eri de Trabajos Varios, 119: 181-210.

**Vegas, J.I.**, 2000. San Juan Ante Portam Latinam: Enterramiento colectivo del Neolítico final. Laguardia, Álava, <http://www.euskonews.eus/0078zbnk/gaia7803es.html>, *Euskonews & Medi*, 78, Azken ikustaldia: 2020/05/08.

### III. Eranskina. Kalkolitoko hilobiratzeak. Lanean aztertutako aztarnategien informazio.



**5. Irudia.** Sorginen Txabola trikuharria Bilar udalerrian, Arabar Errioxan. Iturria: Agirre, 2013.

**Alto de la Huesera** (Araba) 1948, 2010 eta 2011. urteetan industutako sarbidedun trikuharria da (Fernández-Eraso eta Mujika-Alustiza, 2013). Giza hezurren datazioek ehorzketen hasiera Kalkolitoaren hasieran ( $4520 \pm 30$  BP) kokatzen badute ere, badirudi egituraren eraikuntza Neolito Berantiarrean kokatu daitekeela. Gainontzeko C14 datazioek, trikuharriaren erabileraren areagotzea erakusten dute mende batean zehar:  $4390 \pm 30$ ,  $4350 \pm 30$ ,  $4340 \pm 30$ ,  $4320 \pm 30$ ,  $4320 \pm 30$ ,  $4320 \pm 30$ ,  $4300 \pm 30$  eta  $4290 \pm 30$  BP.

Analisi antropologikoari dagokionez: (1) GGK 79 zehaztu da. (2) Gizabanakoen artean hamabost (%20,73) ez- helduak dira (%19,73a haurrak eta %1a nerabeak) eta hirurogeita bat (%79,26) helduak. (3) Sexuari dagokionez, helduen artean %61,53 maskulinoak eta %38,46 femeninoak dira (Fernández, 2007). Hala ere, kontuan hartu behar da posible dela hainbat giza hezur La Cascaja trikuharrikoak izatea (Fernández-Eraso eta Mujika-Alustiza, 2013) eta nahastuta egotea, datatzeko orduan aukera hau dutenak baztertu zirelarik.

**El Sotillo** (Araba) 1963tik industutako sarbidedun trikuharria da (Fernández-Eraso eta Mujika-Alustiza, 2013). Gizabanakoen %100a datatu da, Kalkolito Berriarekin ( $4390 \pm 30$ ,  $4350 \pm 30$ ,  $4040 \pm 30$  eta  $4000 \pm 40$  BP) eta mende erdiko hiato baten ondoren Brontze Aroarekin ( $3550 \pm 30$ ,  $3430 \pm 30$ ,  $3380 \pm 30$ ,  $3360 \pm 30$ ,  $3360 \pm 30$ ,  $3320 \pm 30$ ,  $3160 \pm 30$ ,  $3120 \pm 30$  eta  $2740 \pm 30$  BP) bat egin dutenak.



Giza hezurren azterketari dagokionez: (1) GGK 13 da. (2) Horietatik, 11 heldu eta bi ez-heldu dira (haur bat eta nerabe bat). (3) Sexuari dagokionez, helduen artean sei sexu maskulinoarekin identifikatu dira.

**Aizibita** (Nafarroa) Zirauki udalerrian kokatzen den trikuharria da, 1991-1995 bitartean industua (Beguiristain, 2004). C14 bidez  $4490\pm50$ ,  $4470\pm45$ ,  $4430\pm50$ ,  $4410\pm50$ ,  $4160\pm45$ ,  $4085\pm45$ ,  $4030\pm60$ ,  $3990\pm40$  eta  $3460\pm50$  BP datazioak lortu ziren.

Hezurren azterketatik hainbat datu atera baziren ere, sexuari dagokionez, soilik patologia kistikoa duten gizabanakoena zehaztu da. Hori dela eta, ez dugu Aizibita gure analisirako erabiliko. Hainbat datu: (1) GGK 27 da. (2) Horietatik, 21 heldu eta 6 ez-heldu (Albisu, 2007).

**Longar** (Nafarroa) Viana udalerriko terminoan aurkitzen den hipogea da (6. Irudia). 1991-19993 bitartean industua (Beguiristain, 2004),  $4580\pm90$ ,  $4540\pm70$ ,  $4530\pm60$ ,  $4500\pm60$  eta  $4480\pm50$  BP datazioak lortu dira giza hezurren gainean.

Azterketa antropologikotik lortutako datuak (Rivera, 2011): (1) GGK 38 ezarri da. (2) Horietatik, 24 helduak eta 14 ez-helduak dira. (3) Sexuari dagokionez, helduen artean 12 sexu maskulinokoak, zortzi femeninokoak eta lau zehaztu gabea ditugu.



6. Irudia. Longar hipogea. Iturria: Rivera, 2011.

**Iruaxpe I** (Gipuzkoa) Aretxabaletako udalerrian kokaturiko hilobiratze haitzuloa da. 1983. urtean aurrera eramandako indusketan hilobiratze kolektibo bat identifikatu zen,  $4130\pm110$  BP datatua. Hezurak nahasturik eta konexio anatomikorik gabe agertu ziren (Armendariz, 1987).

Azterketa antropologikoko datuak, ordea, urriak dira: (1) GGK 15 da. (2) Horietatik, bi soilik sexuatu ahal izan dira, biak maskulinoak direlarik. (3) Adinari dagokionez, zazpi helduak eta zortzi ez-helduak dira, azken hauetatik lau nerabeak eta lau haurrak direlarik.


**Urtao II** (Gipuzkoa) Oñati udalerraren terminoan kokatzen den hilobiratze haitzuloa da. 1984-85 bitartean industua, Kalkolito garaiko fase desberdinetako hilobiratzeak identifikatu ziren,  $4490 \pm 170$  eta  $4610 \pm 120$  BP datazioak eman zituztenak (Armendariz, 1989). Hilobiratze kolektiboa da eta giza hezurak nahasturik agertzen dira.

Azterketa antropologikotik hurrengo datuak atera dira: (1) GGK 46. (2) 32 heldu eta 14 ez-heldu. (3) Helduei dagokionez, 29 20-40 urte bitarteko heldu-gazteak eta hiru heldu-zaharrak. Ez-helduei dagokienez, bi nerabe eta 12 haur: fetu bat, bat < 2 urte, hiru 4 urtekoak, bat 5 urtekoa, hiru 6 urtekoak, bat 7 urtekoa, beste bat 9 urtekoa eta 12 urteko bat. (4) Sexuari dagokionez, heldu-zaharren artean bi sexu maskulinokoak eta bat femeninokoa dira, eta heldu-gazteen artean bat maskulino ziburra (Armendariz, 1989).

**Abauntz** (Nafarroa) 1932-1998 bitartean kanpaina arkeologiko desberdinetan industutako haitzuloa da. Hiru tipologia desberdinetako hilobiratzeak identifikatu ziren, kronologia zaharretik berrietara (7. Irudia): fosa-hilobiratzeak, errausketa eta harlauza azpiko hilobiratzeak, batzuk zistetan. Hilobiratze desberdinetatik  $4240 \pm 140$ ,  $4370 \pm 70$ ,  $3900 \pm 35$ ,  $3975 \pm 35$  eta  $4025 \pm 35$  BP datazioak lortu dira (Utrilla, et al. 2013).

Giza hezurren azterketatik lortutako datuak hurrengoak dira: (1) GGK 108. Hala ere, giza aztarna guztiak hiru bilduma desberdinetan banaturik egonda, ez da zifra osotua. (2) Adinari dagokionez, bost urteko adin tarteak ezarri dira, datuak hurrengoak direlarik: 0-5 urte arteko lau, 5-10 tarteko hamaika, 10-15 urte arteko bederatzi, 15-20 tarteko hogeita zazpi, 20-25 urte arteko lau, 25-30 tarteko hamabi, 30-35 urte arteko hamar, 35-40 tarteko bost, 40-45 urte arteko hamaika, 45-50 tarteko bederatzi, 55-55 urte arteko hiru eta 60-65 tarteko hiru. (3) Sexuari dagokionez, 47 sexu maskulinokoak, 41 sexu femeninokoak eta 20 determinatu gabeak dira. (4) 15-20 urte bitarteko nerabeen hilkortasun maila handia ohikoa da historiaurreko gizarteetan, 20 eta 30 bitarteko hilkortasun tasa handiaren antzera (26 gizabanakotik 20 emakumeak), erditze uneko konplikazioekin lotuta. Arreta deitzen du 60 urte baino gehiagoko gizabanakoak egotea. (5) Hildakoen sakabanaketaren inguruko hainbat ondorio atera dira: adinari dagokionez,

15-20 bitarteko nerabeak lehenengo salan kokatzen diren bitartean, 25-45 bitarteko helduak bigarrean; sexuari dagokionez, emakume gazteak pasabidean bereziki eta gizonezko helduak bigarren salan aurkitu ziren.



6. Irudia. Abautz haizuloko oinplanta bertan industutako hilobiratzeekin. Iturria: Utrilla, et al. 2013

**Karea** (Gipuzkoa) Karea A eta Karea B barrunbeek osatzen duten aztarnategia da (Aranburu-Mendizabal, et al. 2018). B barrunbean  $4125 \pm 35$  BP dataturiko Kalkolito garaiko hilobiratzea identifikatu zelarik 2009. urtean aurrera eramandako bi zundaketetan.

Azterketa antropologikoari dagokionez, datuak hurrengoak dira: (1) Gizabanako bakarraren hilobiratzea. (2). Sexuari dagokionez, hainbat hezurren falta dela eta determinatzea zaila da, baina seguruenik gizonezkoa bezala zehaztua dago. (3) Adinari dagokionez, heldu-gazte bezala identifikatua, 25-35 urte bitartekoa.

**Pico Ramos** (Bizkaia) izen bereko mendian kokatzen den hilobiratze kobazuloa da, Barbadun ibaiaren paduran, Muskiz udalerrian. 1995. urtean industua, Kalkolitoko kronologiadun hilobiratzeak aurkitu ziren maila desberdinetan, gehienak 3. mailakoak badira ere. Giza hezurren gainean egindako datazioek  $4100 \pm 110$  -  $4790 \pm 10$  BP eman zuten (Baraybar eta De la Rua, 1995). Material antropologikoa oso kaltetuta agertu zen kobaren tamaina txikia eta mendeetan aurrera eramandako erabilera zela eta. Hala ere, hainbat datu aztertzea lortu zen.

Analisi antropologikoko datuak: (1) GGK 104 zehaztu zen. 2) Sexua soilik 16 gizabanakotan zehaztu ahal izan zen: zortzi maskulino, zortzi femenino, lau maskulino dudan, lau femenino dudan eta 15 determinatu gabeak. (3) Adinari dagokionez, 32 heldu eta 72 ez-heldu identifikatu dira.

**La Orcillas I** (Nafarroa) Nafarroa mendebaldeko Acedo kontzejuan kokatzen den kobazuloa dugu, 2008. urtean industua (Fernández, et al. 2010). Historiaurreari dagokion azken okupazioa Kalkolitoan zehar izan zen, hileta erritua helburu zuelarik. 4490±40 BP datatua, hilotza zoruaren gainean zuzenean jarria izan zen kobazuloaren zatirik sakonenean.

Azterketa antropologikoari dagokionez: (1) Gizabanako bakarra identifikatu da. (2) 30 urte inguruko heldu-gazte bati dagokio. (3) Sexuari dagokionez, maskulino bezala identifikatu da (%81,16eko fidagarritasunarekin).

**Santimamiñe** (Bizkaia) Kortezubi udalerrian kokatzen den kobazuloa dugu (Herrasti eta Etxeberria, 2011). 2004 eta 2006 bitartean bertan eramandako berrikusketa estratigrafikoan giza hezurak identifikatu ziren. Hauek, sakabanaturik eta konexio anatomikorik gabe agertzen dira, C14 bidez 3710 ±40 BP datatu direlarik, kobazuloaren hileta erabilera Kalkolitoaren bukaeraren eta Brontze Aroaren hasieran kokatzen delarik. Salbuespen bezala, ordea, Paleolito garaia dagokion masailezur eta falangea ditugu, hauek aztertuko ez baditugu ere.

Giza hezurren analisiari dagokionez: (1) GGK 6 zehaztu da. (2). Horietatik bi haur, hiru heldu-gazte eta heldu-zahar bat. (3) Sexuari dagokionez, hiru sexu maskulinokoak, bat femeninokoa eta bi determinatu gabeak. (4) Sexu maskulinokoen adin banaketa: bi heldu-gazteak eta heldu-zahar bat. (5) Sexu femeninoari dagokionez, heldu-gazte bezala identifikatua.

**Nardakoste IV** (Gipuzkoa) Oñati udalerrian kokaturiko galeria bakarreko kobazulo bat da. 1995. urtean buruturiko indusketetan Kalkolito bukaera edo Brontze Aroaren hasierarekin bat egiten duen ehorzketa bat identifikatu zen, 3810 ± 6 5 BP datatua (Armendariz, et al., 1998). Lehenengo mailako hilobiratze baten aurrean gaude, gorpuak zuzenean zoruan kokatuak izan zirelarik, haietako batzuen konexio anatomikoak eta beste batzuek gertutasun topografikoak erakusten duen bezala.

Analisi antropologikoak: (1) GGK 14 da. (2) Horietatik, bederatzi helduak eta bost ez-helduak dira. (3) Sexuari dagokionez, helduen artean sei sexu maskulinokoak eta bi sexu femeninokoak dira. (4) Adinari dagokionez, helduen adina 20-40 bitartean kokatzen da. Ez-helduei dagokionez, bi <7 urtekoak dira, horietako bat fetua eta bestea

4-6 urte bitartekoa; beste bi 7-12 urte bitartekoak eta azkena 18-20 urte bitarteko nerabea.

### **Iturri bibliografikoak**

**Agirre, M.**, 2013. Bilarreko akelarrea, <http://mila-agirre.blogspot.com/2013/08/>, *Mila Agirrereren Bloga*, Azken ikustaldia: 2020/05/08.

**Albisu, C.**, 2007. Cinco estudios anatómicos sobre los restos esqueléticos del dolmen de Aizibita (Cirauqui, Navarra), *Cuadernos de Arqueología de la Universidad de Navarra*, 15: 143-175.

**Aranburu-Mendizabal, A., Sarasketa-Gartzia, I., Arrizabalaga, A., Salazar-García, D.C., A.A. Taldea, Iriarte-Chiapusso M.J.**, 2018. El yacimiento calcolítico de Karea en el contexto de las cuevas sepulcrales de Gipuzkoa (País Vasco), *Munibe*, 69: 177-190.

**Armendariz, A.**, 1987. Excavación de la cova sepulcral Iruaxpe I (Aretxabaleta, Gipuzkoa), *Munibe*, 39: 67-92.

**Armendariz, A.**, 1989. Excavación de la cueva sepulcral Urtao II (Oñati, Gipuzkoa), *Munibe*, 41: 45-86.

**Armendariz, A., Etxeberria, F., Herrasti, L.**, 1998. Excavación de la cueva sepulcral Nardakoste IV (Oñati, Gipuzkoa), *Munibe*, 50: 11-120.

**Baraybar, P., De la Rua, C.**, 1995. Estudio antropológico de la población de Pico Ramos (Muskiz, Bizkaia). Consideraciones sobre la demografía, salud y subsistencia, *Munibe*, 47: 151-175.

**Beguiristain, M.A.**, 2004. Restos esqueléticos en yacimientos prehistóricos de Navarra, *Cuadernos de Arqueología*, 12: 79-145.

**Fernández, J., García, M., Fernández, T., Castaños, P., Bailon, S., Murelaga, X., Tarrío, A.**, 2010. La cueva de Las Orcillas 1: una estación de los últimos cazadoraes-recolectadores en La Berruza, *Trabajos de Arqueología de Navarra*, 22: 13-91.

**Fernández, T.**, 2007. Caracterización antropológica y tratamiento funerario de las poblaciones del Neolítico a la Edad del Bronce en la comarca de La Rioja: estado de la cuestión, *Munibe Suplemento*, 32: 421-424.

**Fernández-Eraso, J., Mujika-Alustiza, J.A.**, 2013. La estación megalítica de La Rioja alavesa: cronología, orígenes y ciclos de utilización, *Zephyrus*, 71: 89-106.

**Herrasti, L., Etxeberria, F.**, 2011. Estudio de los restos humanos de la cueva de Santimamiñe (Kortezubi, Bizkaia). Campañas de 2004 a 2006, Non: López, J.C. (eds) *La cueva de Santimamiñe: revisión y actualización*, Kobie BAI, 1: 375-382.

**Rivera, N.**, 2011. Impacto biológico y cultural del Neolítico en poblaciones del Norte de la Península Ibérica. Estudio Bio-Antropológico de la necrópolis de Longar (Viana-Navarra) (Neolítico Final-Calcolítico Antiguo), Doktore tesia, Leioa: UPV/EHU

**Utrilla, P., Mazo, C., Lorenzo, J.I.**, 2013. Rituales funerarios en el Calcolítico de Abauntz. Un ejemplo de lesión con supervivencia, *SALDVIE*, 13-14: 297-314.

## IV. Eranskina. Brontze Aroko hileta errituak. Lanean aztertutako aztarnategien informazio.

**Cortecampo II** (Nafarroa) Los Arcos udalerriaren eremuaren barruan kokaturiko aztarnategia da. 2003 eta 2005 bitartean identifikatu zen, Neolito Berantiarren eta Brontze Aroan zehar okupatua izan zena.  $3025\pm 40$  BP dataturiko lehen mailako ehorzketa indibidual bat identifikatu zen, hobian jarritakoa eta hilarri bidez seinalatutakoa.

Azterketa antropologikotik lortutako datuak: (1) Sexu maskulinoko heldu gazte bat. (2) Adinari dagokionez, 30 urte ingurukoa. (3) Hilotza eskuinaldeko bizkarraldearen gainean etzana izan zen. (4) Ipar-ekialde eta hego-mendebaldea markatzen zituen. (5) Burezurra gorputik bereizita ageri zen, ezkerralderantz makurtua (Ramos, 2007).

**Osaleta** (Nafarroa) Lizarrako merindadeko Deierri haranean kokaturiko hobi zelaia da.  $3380\pm 60$  BP dataturiko hobietan gauzaturiko bi hilobiratze indibidual identifikatu ziren (Ibidem).

Hezurren azterketatik lortutako datuak: (1) Bi gizabanako. (2) Haur bat eta heldu bat. (3) Haurraren adina lau urte ingurukoa, heldua zehaztu gabea. (4): Heldua sexu femeninoarekin identifikatuta (Gusi eta Luján, 2011).

**Urratxa III** (Bizkaia) Orozko udalerriko eremuan Gorbeiako Urratxa izeneko haitz batean kokaturiko kobazuloa dugu. 1983. urtean industua. Kobako leku desberdinetan  $3405\pm 70$ ,  $3475\pm 80$  eta  $3365\pm 80$  BP dataturiko giza hezurak identifikatu ziren, Burdin Arokoak beraz (Muñoz eta Berganza, 1997). Hauek, nahastuta, konexio anatomikorik gabe eta fauna hezurrekin batera agertzen ziren, batzuek alterazio antropikoak erakusten zituztelarik.

Giza hezurren azterketatik hurrengo datuak atera dira: (1) GGK 4. (2) Adinari dagokionez, bi heldu eta bi ez-heldu. (3) Sexuari dagokionez, soilik sexu maskulinoko gizabanako bat identifikatu da.

**Padre Areso** (Nafarroa) Illon Mendilerroan kokaturiko harpea da. Urte anitzetan induskatua 1963 geroztik, bi garai desberdinetan aurrera eramandako hileta errituak identifikatu ziren. Bata, Erdi Aroari dagokion bitartean, bigarrena, fosa sakon bidez egindakoa, Brontze Aroan kokatu da, 3020±35 BP datatua (Beguiristain, 2004).

Analisi antropologikoaren datuak (Beguiristain, 1987): (1) Ahoz gorako etzaneraz ehortzia, burua pareta aldera biratua. (2) Mendebalde-ekialde orientazioarekin. (3) Sexu femeninoarekin identifikatuta. (4) Adinari dakionez, heldua.

**Urbiola edo Gizon Berdeen Koba** (Nafarroa) 1958an induskatutako Lizarrako merindadean, Jurramendiko ipar magalean dagoen Urbiola udalerrian kokaturiko ehorzketa haitzuloa da (Beguiristain, 2004). Aztarnategiaren izena kobre karbonatoaren eraginez burezur batzuek hartutako koloreari dagokio.

Hilobiratzeei buruzko datua. (1) GGK 35 da, hezur luzeen bidez zehaztua. (2) 33 gizabanakoren burezurak bildu dira. (3) Horietatik, 15 burezur sexuatu dira: 11 sexu maskulinoari dagozkio eta lau sexu femeninoari. (4) Adin tarteari dagokionez: 12 bost urte baino gutxiagokoak, zortzi 5 eta 18-20 bitartekoak, bederatzi 20-30 urte bitartekoak, heldu-zahar bat, gainontzekoak identifikatu gabeak. (5) Aipagarria haur eta nerabeen hilkortasun maila (Gusi eta Luján, 2011).

**Gobaederra** (Araba) Baraia Mendilerroan kokaturiko kobazuloa da. 1964 eta 1965 arte industua, Brontze Aroko garai krono-kulturalari dagozkion hainbat hilobiratze identifikatu ziren, 3660±10 BP data lortuz. Hilobiratze kobazulo honetan hiru hileta erritu desberdin identifikatu dira: ehorzketa (GGK 48), errausketa partziala (GGK 5) eta errausketa osoa (GGK 28), lehenengoa gailentzen delarik. Hainbat gorpu konexio anatomikoan agertu baziren ere, orokorrean giza hezurak nahasturik agertu ziren. Bestalde, aztarnategian hiru maila desberdin ziren, erdikoa errausketei dagokielarik.

Azterketa antropologikoei dagokienez (Etxeberria, 1986): (1) GGK 81 da. (2) Sexuari dagokionez, %70-73 bitartean maskulino bezala zehaztu da eta %27-30 femenino bezala. (3) Adinari dagokionez: 70 heldu eta 11 ez-heldu. (4) Helduen artean, 69 gazteak, eta 1 heldua. Ez-helduen artean, lau haur eta zazpi nerabe.



**San Pelayo IV** (Nafarroa) Lizarrako merindadeko Arellano udalerrian, Jurramendi mendiaren hegoaldeko magalean kokaturiko Brontze Aroko herrixka bat da, zeinak egitura hasiberriak dituen. 2014an tipologia desberdineko hiru hilobiratze - hobi, zista eta fosa bidezkoak (8. Irudia) - identifikatu ziren,  $3280\pm 30$ BP dataturikoa (Sesma, et al. 2014).



**8. Irudia.** San Pelayo IV (Nafarroa), 15-17 urte bitarteko nerabe baten fosa-ehorzketa. Iturria: Sesma, et al. 2014.

Azterketa antropologikoei dagokienez: *Hobi-ehorzketa*: (1) Burezurra soilik kontserbatua. (2) 6-8 urte bitarteko haurra. (3) Sexua zehaztu gabea. (4) Bigarren mailako jarreran aurkitua. (5) Gizabanakoa hobitik kanpo deskonposatu zen, hobian soilik burezurra ehortzi zutelarik. *Zista-ehorzketa*: (1) Gizabanako heldu-zahar bezala identifikatu. (2) Sexu maskulinokoa. (3) Bigarren mailako jarreran aurkitua. (4) Hilobiratu ondoren hezurak manipulatu ziren. *Fosa-ehorzketa*: (1) Gaizki kontserbatutako ehorzketa. (2) Adinari dagokionez, 15-17 urte bitarteko nerabea. (3) Sexua zehaztu gabea. (4) Lehen mailako jarrera (Ibidem).

**Bagargi** (Zuberoa) 1960. urtean industutako zista dugu, 1,50 m altuerako tumulu batez estalitakoa (Mujika-Alustiza, et al. 2017). Gizabanako heldu bati zegozkion 43 hezur berreskuratu ziren bertan, seguruenik sexu femeninoko gizabanakoa. Giza hezurretako bat  $3490 \pm 30$  BP datatu da.

Eskaintzen duten datu eskasia edo sexuatzeko eza dela eta, gure azterketan kontuan hartuko ez baditugu ere, aipatzekoak dira garai krono-kultural honi egokitutako haurren eta nerabeen (Gusi eta Luján, 2011) hainbat hilobiratze: **La Saga** Nafarroan (fosa kolektiboan hilobiratutako nerabea), **Obekun** Araban (koban, nerabea) eta **Arantzazu** (koba, 6 urteko haur baten hilobiratzea), **Olatzazpi** (koba, hainbat gizabanako ez-heldu helduekin batera), **Ausokol** (trikuharria, GGK 27, hainbat haur), **Uelogoena** (trikuharria, bi haur, heldu-gazte eta heldu-zahar batekin batera) eta **Ondarre** (9. Irudia) (zista, bi haur bi heldurekin batera) Gipuzkoan.



**9. Irudia.** Ondarreko zistan indusketa lanak. Iturria: Martinez, 2013.

### Iturri bibliografikoak:

**Beguiristain, M.A.,** 1987. Lesiones patológicas en la población del abrigo del Padre Areso (Bigüezal, Navarra), *Zinak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 4: 125-132.

**Beguiristain, M.A.,** 2004. Restos esqueléticos en yacimientos prehistóricos de Navarra, *Cuadernos de Arqueología*, 12: 79-145.

**Etxeberria, F.,** 1986. Paleopatología de los restos humanos de la Edad del Bronce procedentes de Gobaederra (Alava), *Munibe*, 38: 3-17.

**Gusi, F., Luján, J.,** 2011. Enterramientos infantiles y juveniles durante la edad del bronce peninsular: una aproximación cuantitativa, *Quaderns de Prehistòria i Arqueologia de Castelló*, 29: 153-208.

**Martinez, A.,** 2013. Nuevos megalitos en Aralar, <http://cromlechpirenaico.blogspot.com/2013/07/nuevos-megalitos-en-aralar.html>, *El cromlech pirenaico y demás megalitos del N. de España y S. de Francia*, Azken ikustaldia: 2020/05/09.

**Mujika-Alustiza, J.A., Peñalver-Iribarren, X, San Jose, S., Lopetegi-Galarraga, A., Edeso-Fito J.M., Arévalo-Muñoz, E., Pérez,Díaz, S., Ruiz-Alonso, M., Goikoetxea-Zabaleta, I., Fernández-Crespo, T.,** 2017. Los enterramientos en cista en el Pirinero Occidental y su entorno durante la Edad del Bronce, Non: Fernández, J., Mujika, J.A., Arrizabalaga, A. eta García, M. (eds.) *Miscelánea en homenaje a Lydia Zapata Peña (1965-2015)*, Euska Herriko Unibertsitatea, 495-520.

**Muñoz M., Berganza, E.,** 1997. *El yacimiento de la cueva de Urratxa III (Orozko, Bizkaia)*, Universidad de Deusto, Bilbo.

**Ramos, M.,** 2007. Cortecampo II (Los Arcos) y Osaleta (Lorca, Valle del Yerri). Sepulturas descubiertas en las obras de la Autovía del Camino, Non: Sesma, J., Tabar, M.I. eta García, J., *La tierra te sea leve, Arqueología de la muerte en Navarra*, Museo de Navarra, Pamplona, 93-96.

**Sesma, J., García, M.L., Mercedes, A., Moreno, M., Pérez, S., Ruiz, M., López, J.A.,** 2014. Caracterización y cronología de un yacimiento de la Edad del Bronce: San Pelayo IV, Arellano (Navarra), *Trabajos de Arqueología Navarra*, 26: 99-202.

## V7. Erankina. Burdin Aroko hilobiratzeak. Lanean aztertutako aztarnategien informazio.

**Alto de la Cruz** (Nafarroa) Ebro ibaiaren eskuinaldean kokatzen den herrixka da, Cortes de Navarra udalerriaren terminoaren barruan. 1946an aurkitua, aditu ezberdinen zuzendaritzapean indusketa ugari burutu dira aurreko mendean zehar. Brontze eta Burdin Aroan zehar okupazio jarraituak izan dituen herrixka honetan, fosa bidezko haurren hilobiratzeak identifikatu ziren etheen azpian (Beguiristain, 2004).

